

400 anaitasuna 400

1981.eko Martxoan 409. alea - 75 pzta.




Porque lo nuestro es Vizcaya

Bizkaia geurea deláko

Coupe en nosotros

Zeure urtea gurean



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA

Euzko Jaurlaritzako Kultura Saileko

IPARRAGIRRE PROGRAMEKETAKO Zuzendariak

Agurtzen Zaitu

ANAITASUNAKO Zuzendaria, eta Euskal Jaurlaritzako Kultur Kontseilariak deitzen duen Iparragirre buruzko Hormadei Lehiaketako oinarriak igortzen dizkizu, oinarri hauek ahalik eta gehien barreira ditzazun eskatuz.

José María Iparragirre zenaren heriotzaren mendehurrena, urte honetan betetzen delarik, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sallak, kartei iragarri txapelketa eratu du.

OINARRIAK

- 1.- Nahi duenak har dezake parte.
- 2.- Erabili beharko den gaia Iparragirre izango da.
- 3.- Partaide bakoitzak nahi dituen orijinal guztiak aurkez ditzazke, era-

kusketa baterako moduan izan ezker. Orijinalak izan behar dituen neurriak 70x100 zm. dira.

4.- Karteletan nahi et nahiez azaldu behar duten testuak hauek dira: **IPARRAGIRRE** (batez ere nabarmendurik). Eta txikiago: «**Eman da zabalatzazu munduan frutua**» eta **I Centenario del fallecimiento. Eusko Jaurlaritz. Kultur Salla. Gobierno Vasco. Consejería de Cultura.**

5.- Lanak, 1981.go Martxoaren 15a. baino lehen aurkeztu beharko dira: Arabako Delegazioan (Olagibel, 11. Gasteiz). Bizkaikoan (Mazarredo Alamedan, 63. Bilbo).

Gipuzkoakoan (Andia, 13, Donostia).

6.- Orijinalakin batera, sobre hitxi bat bidali behar da, egilearen izena ta zuzenbidea barnean ipiniz eta kartelaren gaia kanpoan.

7.- Lehenengo saria 100.000 pezetakoa izango da eta 25.000 pezetako bi «accesit» ere izango dira.

8.- Epailarien erabakia, alda-ezina izango da, irabazlerik ez aukeratzea gerta daitekelarik.

9.- Txapelketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Ikuspegi desberdinei dagozkien zalantzak, eratzaleek erabakiko dituzte.



Euskal Herria, XX, mendeko bigarren zati honetan, bidegurutze nahasian arkitzen da.

Estatu mailan egoera politikoko berriak, munduko krisis ekonomikoak, zenbait baloreren sorrerak eta bere biztanleen idiosinkrasia edo izakerak, Europako herririk konfliktiboenetarikoak bihurtzen du Euskal Herria.

Agian, orain inoiz baino gehiago, Euskal Herria irudimen eta sormenez beteriko jenderen beharrear arkitzen da, zentzuek, uñe honetan pertsona edo ta herri mailan eztabaidatzen diren kontaezinezko arazoak konpontzen, herrikideak lagunduko baitituzte.

Beharrezko ekinaldi honen lagungarri gisa edo, "HERRIA 2000 ELIZA" aldizkariak kazetari sariketa bat antolatzen du, ondoan aurkeztu diren oinarrietan finkaturik presentatzen diren artikulua edo erreportai argitaratu gabekoentzat.

kal, eta politikoak. Eskola. Unibertsitatea. Euskara. Nafarroa. Euskal Herriko analisis orokorra. Irtenbideak etab. Euskadin ba ote dago deskapitalizaziorik? Iturri posibleak.

Askoren artean hauek izan daitezke lanen gaiak.

2) Idazlanak euskaraz zein erdaraz aurkeztu daitezke. Luzezabalera, ordea, ezin daiteke 8 holandesa (bi lerrogunetara) goiti ibili.

3) 50.000 pztatakoko sari bana emango zaio euskaraz, zeian erdarazko lan onenari.

Lanik jatorrenak gainera, forma, zein tankera ala mami aldetik originalenak halegia, 25.000 pztatakoko saria jasoko du.

4) Lanak hirukoiztuak helbide honetara bidal itzazue: "HERRIA 2000 ELIZA" C. José M. Eskurza, 21, 5.C. BILBO, 13; aitapen honekin batera: "HERRIA 2000" 1981 sari-kerarako.

5) Originalak aurkezteko epea, 1981.eko martxoaren 30ean amaitzen da.

6) Epaimahaikoen osakideen izenak, epaiarekin batera emango dira, apirilaren azken hamabostaldian edo maiatzaren lehen hamabostaldian.

7) Sariketari babesa, "GOÑI" K - Citroën Peugeot-eko konzesionari ofizialak emango dio.

8) Aldizkariak ez ditu originalak bueltatuko eta lanak argitaratzeko eskubidea, nahiz aldizkari zerbakitan nahiz, agian, liburu bilduma osatuz.

9) Sariketan partehartzeak oinarriak onartzea esan nahi du.

ETORKI-K JAKINERAZTEN DU

Agur adiskide maitea,

Badu 26 urte Etorki dantza eta kantu batasunak irauten duela. Ez-tugu lerro labur hauetan bere ixorio luzea kondatzen ahal, baina pundu batzu oroitazten ahal ditugu.

1954 ean Filipe Oyhamburuk muntatu tropak Pariseko "Champs-Élysées" deitu antzoki miresgarrian bere lehen ikusgarriak emaiten ditu, hango egunkari eta astekariak go-resten dituztelarik. Ez zen bakarrik hastapen bat, baina ere bururapen bat, ikusgarri berri hura "Olaeta" eta "Ojdarra" bi taldetan Oyhamburuk asmatu eta egin ikusgarrien ondotik etortzen baitzen. Denek jakina da Oyhamburu dantzan ikasten hasi zela Olaeta irakasle famatuarekin.

26 iragan urte horietan, ditzagun beraz aipa hiruz-palau gertakari inportantenak, eta, lehen-lehenik Etorki 5 aldiz egin dituen ofiziale (profesionala) izaiteko entseiamenduak.

Zertako ofizialeak bezala bizi nahi, denborak erakutsi baitu ez zuela bizi-modu horrek luzeki irauten ahal? Oyhamburuk berak esplikatu du aintz aldiz: "Zazpi dantzak behar diren bezala antzokietan erakusteko, hain aberatsak, ikasgaixtoak eta bertzelakoak baitira, lan handi eta sarkor bat behar da; 6 edo 8 bozetan kantatzeko berdin, eta zazpi herrialdetako soinu berezien jotzeko". Gaietik, gero eta gehiago, Euskaldunek galdetzen dituzte eta Euskadik merexen ditu "ballet" edo dantzaldi berriak. Azken urtetan, Euskadi guziko hiri handietan bezala herri xumenetan ere, Etorki bildu arrakastak aski argi frogatu du bide onean gabiltzala.

Euskal Herrian obratzetik aparte, bertze maila ere segitu behar dugu, gure Euskaldungoa arrotz-erresumetan erakustea berdin garrantziko baitezauku eta ohartu baigara kampionat askok ez dakitela ere nun zer den Euskadi. Bestaldi batzuetan, gure Aberriaren berri bazakiten, astekariak jakinarazirik, gure anaia batzuek Euskadiaren alde egiten duteneri esker, baina horiek

politika konduan galdegu eta goraldur desbertintasunaz ez ziren batera segur. Aldiz, gure ikusgarria ikusita, bilduak ziren, eta aitortzen zuten arras bertzelakoak garala gu, Euskaldunak.

Xede horien guzian betetzeko ahala izan dugu urte hastapenetik goiti, eze "Lan eta Emlengu" minixterioak emaiten baitaiku dirulaguntza bat eta 13 dantzari, dantzaritsa, buruzagi eta soinulari ofizialeak izanen baiditugu. Jende guttik badaki, gure Ipar-Euskadi pobretuntan, kultura sailean dauden elkartek holako dirulaguntza bera eskuratzen ahal dutela, eta Minixterioan dagoen dirua gure ganikakoa baita, zertako hortaz ez balia...

Emlengu berri horiei esker, orain aipatu xedean betzeterat entseiatuko gara eta, ginetik, gure ofiziale-tan dauden dantzari batek "mutxi-koak" ongi jakinez. Eta Xiberutar bertze bi dantzari beren tokiko dantzetan arras trebe izanez, Hego eta Ipar-Euskadiko dantza-taldeek gure laguntza galda dezakete (Villefranque. Urrut. (59) 59 31 74). Bertzalde zertako gure dantzak eta soinuak ikastoletan ez erakuts, euskarazko xehetasun batzu emanez, noiz-nun-nola sortu diren jakinarazteko?

Hunkitzen dugun dirulaguntza eskasa izanez, gastu guzian ordaintzeko, zuen guzian laguntza behar dugu. Sar zaite beraz Etorki baitan, laguntzaile bezala, nahi duzuna emanez:

Biltzarkide ontzaille: 100 libera edo gehiago

Biltzarkide emaille: 30 libera edo gehiago.

Igor "xekea" edo "mandat" (1) gure idazkiari:

Pierre-Luc BONNIN
10, rue de la Monnaie
64100 - BAYONNE

Dirua eskuratuko dugun bezain laster, zure txartela igorriko dautzugu, eta hura erakutsiz, ontzaillea balibazara, gure ikusgarrietan urrik sartzen ahalko zara.

(1) Giro postal.

OINARRIAK

1) Lanek, egun, Euskal Herriko emakume eta gizonezkoen arazo multzo mugatan mugituko beharko dute.

Mugabarne honetan, giza bizitzaren zabalatasun eta aniztasun osoa har daitezke gaitzat, pertsona mailan zein komunitate mailan, sozial nahiz politikoa.

Bikote harremanak. Maitasuna. Familia. Fenomeno erlijiosoa. Uri, nekazal eta arrantza arazoak. Gazte taldeak. Arazo ekonomiko, sindi-

3.or.- Agiriak

4.or.- Aurkibidea

5.or.- Artikulubura

6.or.- Aita Villasanteren liburu berria.

7.or.- Harrika. "Erregea eta Genozi-dioa" lehengo Anaitasunako artikuluar buruzko erantzuna

8.or.- Euskal Arrantza

9.or.- Aingerutxuak

10.or.- Azken kasu ezaguna dela eta... — Arregiz enahilketari buruz.

14.or.- Lau Milioi fatalista. Nazioarte ko artikulua hau benetan aipa garria da. Nikaraguako egoera larriaren irudiaz beste, miragarri ro jazoten du euskal kazetaritza berriaren maila, bere gorengo punturaino eramanez. "Lau milioi fatalista" ez da soilik nazio-artekoaz aritzen den zerbait. Egitura soil eta laino batez fin-katurik, euskararen mamiak us-tegabeko zehaztasun xeheak ere eman ditzakela irakasten digu.

18.or.- Progresoa edo kloakarako ibilaldia.

Aldous Houxley-k arrazoia omen. Gero eta progresismo-ago, gero eta faxistago.

20.or.- Militarrak beti ondo. Hegaz-kingintzari buruz ematen diren kopuruak kontutan hartzeoak dira.

22.or.- Katalunyako abertzaleak pre-sondegietara ere.

Quim Pelegri juzkatu berri izan da "Audiencia Nacional"ean. Lau urte bota dizkiote. Hona



hemen Anaitasunara iritsi zitzaigun elkarriketa

23.or.- Aita Saindua

24.or.- Robert Laxalt-en bide luze eta meharra idazlea izateko. E.E.B. etako aldizkari batetan argitaratu elkarrikusketa bat, A. Eguzkitzak euskaratu du Anaitasunarentzat. Robert, euskal artzainen semea, idazle eta filmegelela bihurtu da.

26.or.- Dimatik datorren artista bat.

28.or.- Irati, jaioberri hori.

29.or.- Euskaraz bizi dezagun.

30.or.- Dibortzioa: Behar eta eskubidea

Dibortzioari buruzko txosten luze eta zehatza. Kristau ikuspegi aberats batetan oinarritua.

34.or.- Komunikabideen garrantziaz. "Edozein komunikabidetako mezua hartzerakoan ikuspundu kritikoaz jarriko dugu geure burua".

35.or.- Anaitasunarako gutuna.

"Anaitasuna HBkoa agertzen da nagusi eta horregatik hontara nahi dut ekarri, hil duten Ryan"

36.or.- Produktibitate ez, mese-dez.

38.or.- Besteak

40.or.- Inauteria

41.or.- Urrezko Astabelarriak: Petro-nor Txapeldun

42.or.- Akrostika. Lehengo Anaitasunako akrostika, txikiegia atera zitzaigunez, hona hemen berriro ikusi ezinezkoa zen lehengokoa. Postaz etorriak



anaitasuna

Ale honetan lankide izan gara: Millan Aldana, I. Antiguada, B. Barandiaran, J.I. Basterretxea, J.R. Bilbao, J.R. Etxebarria, I. Esparta, A. Eguzkitza, X. Elorriaga, J. Idigoras, I. Lasa, J. Pérez-K. Santisteban, T. Trifol.

ANAITASUNA

Zabalbide 68 - entlo.
Tfnoa.: (9-4) 411 66 20 - 30.

MOLDIZTEGIA

Estudios Graficos.
Lege G.D.L. BI 1753 - 1967.
Printed in the Basque Country.



LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA

Astelehen batetan Ryan erahil zuten. Baina erahilke-ta hori urrunegi geratu zaigu, Euskal Herrian eta Estatu-
tuan etengabeki gertatutako guztiekin.

Ryani buruz edozein azterketa serioa egin baino lehen, hurrengo ostiralean beste erahilketa bat, Arregi-rena. Bitartean beste ekintza bat: Kontsulen bahiketa. Hurrengo astelehenean estatu kolpea, handik guttitara, polimilien erabakia eta Martxoak bederatzian, astelehe-
nean ere bai, Telesforo de Monzón joan zaigu betirako. Gertakizunok, bata bestearen atzean etorri dira. Arregi-
rik Ryan estali zuten. Kontsulen bahiketak, Arregi. Estatu kolpeak beste guztiak.

Izan ere, Otsailak 23. an Tejerok parlamentu osoa bahi-tu zuten. Baina Tejero, denok dakigunez, ez zegoen ba-karririk. Millans del Bosch, 3. errejiotako kapitana jenera-la zelarik, zetio egoera proklamatu zuten Valentzián. Iza-tez, Millans del Bosch ez zen golpista bakarria. Sevilla, Zaragoza eta La Coruña golpisten harian egon ziren. Go-bernuaren alde, lehen errejiotako soilik agertzen zen eta ez guztia. Bruneteko zenbait ofizial ere golpista zen. Junta nagusiaren bigarren agintea, Armada jenerala, beste golpista bat zen. Horra hor, hitz laburrez, estatu kolpe-ari buruzko daturik nagusienak.

Dudarik gabe, estatu kolpe saio serio bat izandakoa. Eta nola ez!. Harmadaren aginteritza erdia baino gehiagok, eskua sarturik baitzeukan!. Hala ere, ez zuten aurrerarik egin; ohi den legez behintzat. Kolpea gelarazi zuten.

Askoren ustez, delako kolpea ongi muntaturiko kome-dia eta fartsa besterik ez da izan. Helburuak, gu ikarat-zea: euskaldunak izutu eta ezkerria ahuldu. Baina helbu-ru berberoiak izan arren, ez du suposatzen lehengokoa. Inolako frogarik gabe, fartsa bat dela esatea, bidegabe-
keria nabaria da.

Zurumurruek, ikuspegiak, hubilketek ez dute balio az-terketa serioa egiteko. Harmadaren zerbitzuak (eta ez bakarrik harmadarenak) aurrez aurretik jakin zezake-en. Logikoena, berorixe suposatzea da. Zenbait informa-zioaren arauera, kolpea — "Operación los Almendros" gerorako programaturik zegoen, Martxorako. Nork en-gainatu zuten Tejero Otsailaren 23ra aurreratuz?. Informazio zerbitzu be-rek?. Ba liteke. Baina honek ez dio ezer kentzen kolpearen seriotasunari. Kolpea gelditu bazen, —eta hau da argirik agertzen zaigun gauza bakarria— interes kontrakorren arauera gelditu zen.

"Multinazionalek" gelditu zuten estatu kolpea. Kolpea, CEOek, Europa eta Amerikako multinazionalek gelditu zuten. Beren interesekin batera ez baitzihoan diktadura bat Espainiako Estatuan. Beroni buruz, adierazgarria da benetan, gau hartan eta SER irratia-
ren bidez hango jeneral batek esandakoa: "Se puede estar de acuerdo con Tejero en mucho de lo que dice y opina pero hay que hacerles ver que existen otros medios para llegar al fin y los que ellos han elegido no son desde luego los más adecuados". Gure ustez, hor dago asuntua guzizonek ka-koa. Hitzarmena beraz egin zen, jeneral ori konplota-tuen buru ageri bat baitzen. Hitzarmen honetan, "fatxe-kin" ados jarri dira multinazionalek. Suarezen "transi-ción" delakoa amaitutzat jo beharra zegoen: "No hay mas concesiones a la galería" (Calvo Sotelo-k, Otsaile-an)

Egia esan, Suarezek "gauza asko eman digu". Bere traiektoria adierazgarri zaigu. Hamar, hoge hila eta ikurrina. Hainbeste, eta amnistia. Hainbeste, eta auto-nomi estatutua. Hainbeste, eta transferentzia batzu. Lorpen hauek geldieratzekoak ziren, nolabait. Burruka-ri bere esangura osoa ematen ari zitzaion Suarez jauna. Eta logikotzat jo behar bada ere, kontextu honen barne bilatu behar da ETA (pm)-aren erabakia. Calvo Sotelok esaten digunean: "Con Suarez se acabó la transición", aipatutakoa esaten ari zaigu. "Ez, ez uste, gauzak lort-zen segituko duzuenik. Amaitu da jokoa, garbi duzue, be-gira tankeak"... "Daukazuena edo estatu kolpea". Eta estatu kolpe saioa egiazkoa izan bada, mehatxua ez da izan behar horregatik egiazkoa. Estatu kolpe batek mesedea baino, kalte handiagoak ekarriko lizkieke. On-gi, ongi ba dakite; horregatik gelarazi zuten.


Gure burrukak, alda dezake hitzarmena. Ahultzeak, ikaratzeak, belaunikatzeak ez du balio. itxaropenak burrukan egoten dihardu. Azkenez, ohi den legez, fatxa eta espainolista guztien gainetik bestelako hitzarmenak egitera beharturik egonen dira; paperezko demokrazia, demokrazia begiratu, demokrazia faxista, haustura bihurtuz.

Orain gutti, Margaret Thatcherrek Belfastera egindako bisitan, zera esan zuten: Ipar Irlandak bat egin dezake Hegoaldekoarekin, haren parlamentuak eta herri subi-ranoak nahi izanez gero". Euskadiri buruz, traumarik egin gabe Espainiako lehendakariaren batek gauza bera ageri-agerian, esango duenean izango dugu hemen de-mokrazia. Bitartean, lepoan hartu eta segi aurrera.

AITA VILLASANTEREN LIBURU BERRIA

La H en la ortografía vasca

Fr. Luis Villasante



Aita Luis Villasante Euskaltzainburuak, "Luis de Elizalde" bildumako 7. liburua argitaratu du, erdaraz idatzia, orain arteko guztiak bezala, "La H en la ortografía Vasca" izenez. Dakizuenez, bilduma honetako liburuek, euskaren batasunaren inguruan dauden arazoak dituzte gaitzat, eta orain arte argitaturakoak hauek dira:

- 1.- Hacia la lengua literaria común
- 2.- La declinación del vasco literario común
- 3.- Palabras compuestas y derivadas
- 4.- Sintaxis de la oración compuesta.
- 5.- Estudios de sintaxis vasca, eta
- 6.- Sintaxis de la oración simple.

Liburu honetan ere, Koldo Mitxelena jauren egiten dituen testuak dagozkion oharrak, eta horrez gainera, hitzaurrea bera ere bai. Liburuaren lehen kapituluak 1979-11-30ean izan zen batzarrean, Euskaltzaindiak H-ari buru hartutako erabakia dator, aktaren kopia berrazpiztu gaz. Gero, H-aren azaroaren historia egiten dute zenbait euskaltzalen erretziak hartuz, Azkue, Gabelenak, Campionenak, Broussainak, Krutwigenak, Arestirenak eta beste batzurenak, Arantzazuko eta Bergarako batzarretan amaitzeko. Letra hori Euskal Herri osoan erabilia izan dela gogoratzeko ere beste kapitulu oso bat dator, gero, Lafonek hizkuntza mintzatuaren agertzen diren H-ek buruz egindako azterketa eta handik ateratako arauak azpizten dira. Amaitzeko, Euskaltzaindiak lehen polemiko honen erabilera finkatzeko erabakia, H-ko kriterioak zeintzu diren esaten da, ondorengo H letradunen hitzen zerrenda, ala liburuaren aurkezpenean Villasantek berak esan zuen moduan, Hatxetegia, azalpen ugari hornituta. Hau da liburuaren egitura.

Aurkezpena, Bilboko "Galería del Libro" burudenda egin zen, otsailaren 24ean "Euskal Liburuaren X Erakusketari" hasiera emanez. Liburua aurkezten, Koldo Mitxelena jauna, J. Haritschelhar jauna eta egilea bera, Aita Luis Villasante; entzuten jenderik nahiko, beste honelako beste ekintza batzukin konparatuz, aurpegi ezagunak ere asko, P. Altuna, Knörr, A. Zelaieta, J.J. Zearreta, J.R. Etxebarria, A. Irigoien, X. Kintana, J.L. Lizundia

R. Badiola, J.L. Goikoetxea, X. Gereño eta abar.

Aurkezlariek, euskaraz eta erdaraz egin zuten, inperioko hizkuntzan euskaraz baino gehitsuago, baina tira.

Haiei entzutakoak gure lehen momentuko eritzia finkatu egin du: liburua erdaldunak konbentzitzeko egin dela, eta oraindik gehiago esango genuke: H-ren kontrako Sanbindarrei oker daudela demostratzeko, Sabino ez zelako H-ren kontrakoa eta arazo honetan ifartarrek eta hegotarrek, denok eman dugula amore erdibide bateara heltzeko, beraz, euskaldunak izan behar dugula eta ez bizkaieradunak edo lapurteradunak edo gipuzkeradunak.

Eta Sabinorekiko arrazoiak benetan dira kontudenteak:

1.- Lapurteraz zegoen "Aita Gurea", Sabinok zuzendu (garbitu) egin zuen, H errespetatuz dio Villasantek, eta guk oraindik gehiago esango genuke, H multiplikatuz, zeren testu originalean 3 datozen bitartean, zuzenduan 10 bait datoz.

2.- Aspirazioa edo Hasperapena euskalki batzutan bizirik dagoen soinua dela dio Sabinok, eta honi ortografian irtenbideren bat topa behar zaiola, puntu, azentu edo zerbaitzen bidez, **ala H letra erabiliz**, euskal alfabetoan sobran dagoen letra dela eta.

3.- Sabinok, beste hau ere ba dio, euskalkiak bat baino gehiago izan arren, ortografia bat bakarra izan behar dela euskalki guztientzat.

Honaino denok konforme, baina azkenean, elkarrizketan (orain dena euskaraz), eztabaida bi sortu ziren, bata azalekoa eta sakonekoa bestea.

1.- Aurkezpena erdaldunei begira izan zela eta han geuzdenak euskaldunak ginela gehienak. Betiko leloa. Eta hau errebatitzeko Mitxelena jaunak oso argumentu peligrrosoa erabili zuen, euskararen etsaien argumenturik maiteena: euskaldunak % 25 garen bitartean erdaldunak % 75 direla. Argumentu peligrrosoa dela diogu, zeren bide horretatik aurrera jotzen badugu, esan genezake gaurregun Euskal Herriaren erdara (frantsesa nahiz española) ulertzen ez dutenen kopurua ez dela % 3ra heltzen, beraz, efektibotasun hori helburutzat hartuz, egin dezagun erdaraz, bota pertsiana Euskaltzaindian eta Viva Unamuno Hau. gure eritzia da.

2.- Euskaltzaindiak hartutako erabakiekin ez daudela denak konforme, eta ez gara H-ren eta Euskaltzaindiaren kontrakoetaz ari, betidaniko Euskaltzaindiaren defendatsaileetaz. baizik. Arrazoa: ez duela kontutan izan azken urteotan H-ri buruzko erabilera nahiko finkatuta zegoela, eta esate baterako, euskara batuaren barruan egin diren hiztegiak (UZEL, Mujika, Kintana, Gereño), ikastoletarako textugintza, Udako Euskal Unibertsitateko testuak, euskara batuak (ez besteak) idazten diren aldizkarietan eta hainbat idazlerengan, erabilera berdina ala berdintsua zegoela, eta Euskaltzaindiak bere erabakiarekin, desorekatu egin duela arazoa. Orain arte idatzitako ezer ere ez dago ondo.

Adibide batzu ipiniz, etimologia eta erabilerearen arteko auzian, arrazoa bigarrenari emateak zera dakargu:

HERRI, baina ERBESTE, ERTZAIN. Eta, nola idatzi behar da, HERKIDE ala ERKIDE?

HARRI, HARRESI eta HARROBI, baina ARBEL eta ARKATZ.

Arantzazuko Batzarrean segurutzat emandako batzu ere desagertu egin dira: (H) AUZI, (H) ARMA, (H) IDOI, eta beste aldebatetatik Arantzazun dudan jartzen ziren batzu baina idazleen ohiturak finkatu zuten batzu ere desagertu egin dira: (H) AITZUR, (H) AIZKORA, (H) ARBEL, (H) AROTZ, (H) AUZO, DEI (H) ADAR, (H) IBAI eta abar. Argi geratzen ez diren kasu batzu ere ba dira: HATZ EGIN = rascar, BEHATZ = dedo, baina ATZAZAL = uña, ATZAPAR = garra; orduan, HATZ/HATZAMAR nola idatzi behar da? Lehen aipatutako HERKIDAREN kasu berdina. Eta amaitzeko, kasu kusioso bat: hitza ifarraldekoa ala hegoaldekoa denari begiratzuz,

sustrai bereko hitza era bitara idatz daiteke: DOHAIN/DOHATSU/DOHAINIK, baina DOAN/DOANIK.

Beraz, han ikusi zenaren arauera, erdibide hau hartuta Euskaltzaindiak lortu duena zera izan da: H-ren kontrakoak erakarri ez, eta aldekoak nahastu.

Baina zorionez, entzundakoari kasu egiten badiogu behintzak, H-ren aldeko hauek, ez diote Euskaltzain oso batek botatako desafiari kasurik egingo, eta ez da zatiketarik egongo. Batek esan zuen moduan: disziplinatuegiak gara.

Orain behar dena bestea da, H-ren kontrakoak erdibide hau onartzea, baina, mirakulu hau ez dut uste erraza denik.

J.R.B.

HARRIKA

Hamar bat urte ba dira Anaitasuna aldizkaria hartu eta irakurri egiten dudala, eta, nola ez, bere horrialdeetan anitz moztetako eritziak irakurri ahal izan ditut. Anaitasuna-ri esker sortu zitzaidan euskaraz irakurtzeko zaletasuna, dela hamar urte, eta horri esker gaur ez naiz, erabat analfabetoa.

Urte hauetan, makina bat huts eta erdarakada ikusi izan ditut bertan (baita 408 garrengo azken ale honetan ere), baina euskara erabili egin behar dela, hilkoez bada, eta dena barkagarri deritzat, euskara, erabiliaz sendotu eta azkartuko delakoan (Horrexek bultzatu nau lerro trakets hauek idaztera).

Horregaitik, Anaitasuna aldizkariaren horrialdeetan, euskara dala ta, zenbait euskaldunen aurkako, erasoak ikusten ditudanean, min ematen dit, bidegabekeria iruditzen zait, eta "Pekatutik libre dagoenak, bota beza lehen harria" hura dator kit burura.

Behin batean, Zeruko Argian, lazkaotxiki bertsolari ospetsuak, beste "gaurko" euskaldunen erdarakadak salatu zituen, eta handik laister, Lazkao-Txiki berak sartutako zenbait erdarakada aipatzen zitzaizkion, Zeruko Argia-n bertan. Guzti honek ez du esan nahi gaizki egiten duenari etzaiola zuzendu behar (iseka egin gabe), baina, euskara dala ta, euskaldunok geure artean harrika hasi baino lehen, pixka bat gehiago pentsatu behar dugula uste dut.

Guzti hau, otsaileko alean "Erregea eta genozidioa" artikulua irakurri ondoren bururatu zait, eta argian Garaikoetxea jaunari egiten zaion salakuntza baina larriagoak egingo ziren, bai Anaitasuna-n eta baita ere beste zenbait aldizkarietan, eta bai eskerreko jendei eta baita ere eskubikoei, baina behar bada honako hau edalontzia

urgaineztatu duen tanta izan da niretzat, eta horrek bultzatu nau idaztera.

"Garaikoetxeak euskararen berririk asko ez duenez, hor kasu, bere ebakiera eta ahozkatze guztiz erdalduna" diosku kazetariak. Beti esan ohi dugu, eta orain irazkintzen ari naizen ale honetako beste horrialde batetan ere irakur daiteke, ezen euskaldun berrien arazo larrietakoa, euskaraz mintzatzen hasten direnean sortzen zaiela, eta mintzatuaz bakarrik gairi lezaketela zailtasun hori, eta, noski, hortan lagundu behar zaiela.

Eta euskal lehendakaria jendaurrean euskaraz hitzegiten hasten denean, bere ahozkerara zer nolakoa den eztabaidatzen hasten gara. Zer egin behar du? Ahozkerara bikain eta egoki bat lortu arte, erdaraz hitzegi? Beste zenbait ezker, eskubi eta erdiko politiko, artista, sindikalista, eta barrek egiten duten lez, hitzaldiak erdaraz egin? Ez. Nik Garaikoetxeak zer esan zuen erraz ulertu nuen behintzat, eta jendaurrean beti euskaraz mintzatzeari eskatu ko nioke gaur bertatik hasita.

Beste aldetik, bere hitzaldia egiteko euskaltzainburuaren aholkua eskatu bazuen, gauzak hobeto egiteko asmoz izango zeri noski, eta eredu eta jarraibide ederra eman zien euskarari batere garrantzirik eman barik, edozer kintenkeri esan eta idazten dutenei, euskaraz ari direlaketan (Anaitasuna-k banatzen zituen "urrezko astabelarriak" lekuko).

Norbaitek esari liteke: Honek mendia egin dik hondar pikor batetatik. Baina niri zera iruditzen zait, euskararen egoera salatzeke, egoera hori zein larria den adierazteke, errudunak bilatzeko, irtenbideak aztertzeke, eta abar, ez dagoela inori eraso pertsonal zentzugabe eta itsusirik egin beharrik.

Mikel Iriondo (Donostia)

EUSKAL ARRANTZA PIKUTARA

Dirudienez, CEEkoek indarra duenak arrazoa duela erakutsi nahi digute, Paris eta Madrilen artean gertatu izan diren tratu horietan, Euskal eta Espainiako ifarraldeko arrantzaren arazoa sortu denean.

Baina egia esan, itsasoko lana eta bizitza ondoen ezagutzen dutenak: arrantzaleak, hain zuzen, eztabaidetatik kanpo gelditu izan dira supergobernuak arazoak heuren artean konpontzeko nahiko direlakoan edo.

Datuekin jolastea nahi baldin badugu hona hemen beste batzuk: 80.ean barkuotariko %38a erabili barik aurkitzen zen, aurtengo komenioaz %68a izango da portuetan gelditu beharko dena.

Espainiako gobernuaren arrantza-politika ezak eta CEEK gobernu honetan eragiten duen indarrak hiltegiara daramate euskal arrantza. Barkurik gabe gelditu direnentzat, adibidez, estatuak ematen dituen soldatak kopuruotan aurki ditzakegu: ezkongaiantzat 44.083 ptz., semealaben bat duen ezkonduari 45.927 ptz. ematen zaizkio eta birekin aurkitzen denari 47.911.

Baina paro gaizto batetan aurkitzea ez da arazorik larriena, 145 lizentzia baino ez dira ta arrantza azpiidazkariak pozik aurkitzen dela dio; ondorioa? Arrantzaleak bai Paristik eta Madrildik ahazturik daudela. Hori alde batetik, bestetik, esan dezagun Calvo Sotelok (ekonomi azpiidazkari zenean) bere esku sartzeak izan

zituela arazo honeetan; azken gobernuotan arrantzaleek harturiko eskubide batzuk utziak izan dira inoiz ezagutu ez diren beste kontzesio batzuen truke. Baina ezin dugu ahaztu lanik gabe gelditzen diren ontzirik gehienak Euskal Herrikoak direla eta hor Espainiako gobernuaren azpi-joko bat ikusi nahi dugu.

Armadoreek 76.ean esaniko esaldi bat komentatzearen beharra dugu une honetan. "Gaur egun lizentziarik ezartzea onartzen baldin badugu, beste gauza bat onartzen dugu implizitoki, hauxe: ezarketa unilateral bat; hau da, gu beti ari izan garen ur batzuetatik irtetzeko ezarketa unilaterala "Zein maila izan du Paris eta Madrilen arteko elkarrizketotan, urte honetan zehar, armadoreei ohiturak eman zien aipaturiko eskubide horrek? Dakikenak erantzun beza.

Estatu bioi eskatu behar baldin bazaie erresponsabilitaterik, Espainiakoari gehiago eskatu behar zaio, orain direla bost urte hasi zirelako CEEK eginiko errestrizioak eta oraindik gobernuak ez du ezer proposatu orduan arrantzaren berrikuntzarako beharrezko ikusten ziren gauzetarikorik. Paris eta Madrilek horrela jokatzen badute hemendik aurrera, hiru urte barru ez da izango euskal arrantzarik.

Une honetan ezin ikusi gauzak behar bezain garbiak, baina Madrileko gobernuak ez du jokatu garbi CEEren errestrizioak hasi zirenetik hona, hori argi dago.

J.I.B.

200 mila

Gransol





**Europako
Merkatu
Komuna**

Lehorretarako ontziak ote?



AINGERUTXOAK

Sinetsarazi digute,
eguzkirik ez zela,
hodei txar batengandik
bait zen gordea.

Hau da "GUK" taldearen bertso zatia,
eta da gure egoera nahasiaren ondorena.

Gauzak nahastea bezelakorik ez da gure
etsaiantzat. Zer probetxu hobeagorik?

Orain arte aski gauza irentserazi digute;
eta geroztik handiagoak, hanpatuagoak
nahi...

Esaten digute, orain proletalgora ez dela
iraultzaren gidari. Orain proletariagorik ez da;
langileak ia nagusi bilakatu dira; burgeseria
bihurtu dira...

Orain teknokrazia da langile-klase
berriaren motorea.

Orain inor ez da miserian. Orain denak
ugaritasunean, abundantzian, oparotasu-
nean bizi dira, omen gara.

Hau da errebisiozaleek, ez komunistak ez
sozialistak diren pezeroek pregonatzen di-
gutena; beraien problema baita. Bestela-
katu dira, saldu dira, beren burua saldu du-
te eta orain sozialismoak diren pezeroek
pregonatzen digutena; beraien problema
baita. Bestelakatu dira, saldu dira, beren
burua saldu dute eta orain sozialismoak tra-
ba egiten die; adibidez PCE-ri eta EIAko
Oinaindiatarrei...

Orain burgeseria ez da langile-klasearen
esplotatzailea, ez. Orain ez dago klase-
burrurik. Bat-batean denak "aingeru"
bihurtu dira! Horrelako miraririk!

Orain burruka harmatua erokeria da,
horren beharrik ez dugu!

Zozoena da gaisotasun hori!

Lantegiko ugazabæ edo nagusiak ez digu
gehiago ebasten, ez digu plusbalioa ken-
tzen; horiek aintzinako ametsak dira...!

Orain gobernatzen gaituztenak ez gaituzte
engainatzen, ez. Orainoak gure onez ari
dira; ez dute beste asmorik!

Orain agintean, boterean direnak ez
gaituzte ez esplotatzen ez zapaltzen, ez.
Orain "nazioaren." Oniez ari diren mistonis-
tak dira.

Orain paradisuari gaude!

Orain, Garaikoetxea, Suarez, Giscard,
Schmidt, Thatcher, Reagan, etabarrek, mi-
siolari joatea erabaki dute, Euskadiko,
Kortsikako. Badertarren erailketaz, Irlanda-
ko, Vietnam, Nikaragua, Sabadorreko itsu-
keriaz arrepentituak, masakre haietaz da-
mutuak daudelako.

Orain, aitasinduaren bedeinkapenez ze-
rua irabazia dukete...

Eta beste mundu batetan, hemen Euska-
din, oinak lurrean jarrik ditugunoi sinets
grazi nahi dugute eguzkirik ez dela...

Baina sistema kapitalistan klase zapal-
tzailea da agintean dena; eta orain, multi-
nazional bateko buruzagia den injinadorea,
langile-klasearen laguna dela ez digute ire-
tsi eraziko. Euskal populuak gorrotatzen
duen LEMOIZko nuklearreko zentral (Eus-
kadiren kontrako bomba atomikoa etxean)
goi-arduraduna gure adiskidea denik ez di-
gute buruan sartuko, nahiz lan hortan UGT
eta CCOO-ko salduetako sindikatu tradi-
zionalak, eta ELA hori salatatu.

Noizdanik burgesia handiaren
"neskame" leialak, haien ontasunen ardu-
radun txintxoak, langile-klasearen lagunak
dira?

"Sinestarazi digute, gizonik zuzenienak
zirela gure legeen egileak".

Alienazioak, enajenazioak zernahi ikuste-
raziko digu; baina noiz irekiko ditugu be-
giak; noiz ireki nahiko ditugu?

"El libro arbitrio no es, por tanto, otra
cosa que la capacidad de decidir con cono-
cimiento de causa". (Engels).

Jan, edan, larrua jo, autoa eta telebista
erosi, eta bapo! Hor dugu zerri ederra, guri-
guria, Zer gara? tresna batzu, abere batzu
edo jostailu batzu...

Ez da itsu handiagorik, ikusi nahi ez
duena baino!

Ez da gorrakorik, entzun nahi ez duena
baino!

Ez da burjesagorik, butako "iraultzailea"
baino!

Ez da gaur estatualistagorik, estatuzalea,
autonomizalea baino!

Zergatik engainatuak izan nahi dugu...!
Libertatearen bildur ote gara?

HAROTZA

Askotan ezin idatz daiteke dardara bizirik sentitzeke, eta hauxe jazo zaigu Joseba Arregi Izagirrearen hilketaren berri hartu dugunean. Jakin ere, ba genekien Estatuak tortura okaztegarriak erabiltzen zituen, baina, hala eta guztiz ere, saien barre-algara sadikoez kanpaiek hiletetara jotzen ez zuten bitartean, ez genion garrantzi handirik ematen. Aspaldidanik mamiturik geneukan arazoa desestaltzko, hil baten beharrean izan gara ("El mártir que necesitaba E.T.A." izan omen da).

1.- JOSEBAren hilketaz

Ez gara hildako honen arrazoiak aztertzen hasiko, zeren eta torturengatik izan zela erraz den ikusten (Goikoek "pasada hutsa" izendatu dutenean...).

Arregi Otsailaren lauan detenitu zuten. Etxabe bere burrukakidearekin, kotxez jazarpena egin ondoren. Automobilaren barruan zeuden beste lagun biek ihesari eman zioten Madrilen zehar. Egun berebean, DGSKo giletan sartu

zuten Arregi, hala bederatzi egunetan torturatzeke, itaunketa inportantea zela eta. Modu horretaz, hilaren 13an, eta hiltzeko zorian zegoenean, Carabanchelgo gartzelara eraman zuten presaka, hobeto sendotzeko. Baina oro izan zen alferrik: Espetxez kanpo kontu hobeak har zitzan zeramatelarik, igogailuan hil zen Usurbil. Gero atxakiak etorri ziren baina hori beste kontu bat da...

Medikuak aitortu zuenez, ba zituen gorputzean zehar anitz zauri, baita oinetan erredurak ere. Zumai haren adiskideak ba zeukan zeresanik ere: Bezperetan ikusi zuen Usurbil eta konturatu zen ubelunez beterik zegoela. Ahotik bitza zerion eta ezin txiza egin zuen.

Nabari denez, Usurbil erhana izan zen, eta hau sinetsiko ez duenak Euskadiko Ezkerrari gorri argazkiak araka bitza.

2.- KOMUNIKABIDEAK, IXILIK.

Kontu handiaz, egunkari guztiek eta beste komunikabideek kondatu zuten Arregiren hilketeta. "Hilketa" hitza ez zen gehienetan, haien azalegituretan ageri, lider baten aburua aipatzen zuen informazioan izan ezik. Izan ere, kontuz ibili behar, baina txit argi ikusi genuen jokaera hori aurreko astearen gertaeraz gonbaratuz...Usurbilen hilketa, objektiboki, bestea

AZKE EZA DELI


baino inportanteagoa zen, legea betetzen eta konstituziozko ordenua defendatzen omen dauden morroi batzuk eginda zirela goen. Eta halakoak goratzen saiatzen diren ereduak baldin badira, lege hoietan ematen dutenei nolatan sistemaren bertsio sartzin behartuko?. Baina ez. Komunikabideak bildur izateagatik, agian.

Estatuko boterearen hilketa honi ez zuten halako. Oraindik ere gogoratzen dugun Amilibiaren arazoaz "El Imparcial-en" argitaratua: "En qué quedamos?. Ante estos hechos hemos de reflexionar: ¿No cree el Sr. Bandrés que un aparato de seguridad tan refinado" como el que ha descrito en las noticias de prensa se comportaría con muchísima cautela en el supuesto de haber aplicado el método contra Amilibia no eran graves? ¿Por qué habían de aplicarle un método tan inhumano y reprobable?. ¿POR SADISMO?.

Egia esan, "colegas imparciales", ez duzue gauza batzutat gain, horrelakoak ez duzue zirtzilak izaten zarete "UN APARATO DE SEGURIDAD MUY REFINADO" izan arren.

HILKETAZKO ERREFORMISTEN FALTSERIA

Usurbil hilda, zerbait egin behar zuten erreformistek haien burua zeharo gaitortzeko. Lehendabizi, greba orokorra egin



KASU UNA ETA..

deitzea (Ryan-enaz paralelismo bat sortze-
arren). Gero, fartsa segitzeko, ekintza bakarra
zela esatea noski. Demokrazia hasberri honen
"huts bat".

Besterik ez zen. Eta jo eta ke agiriak argita-
ratzen hasiak izan ziren, kasu honen zioak
herriari adierazteko —Guk askotan ez
baitaukagu zentzu kritikorik haien txostenak
irakurri aurretik...

Eta denak ikusten hasita, zer esango genuke
PCE-k kaleratutako oharraz, esaterako?. Irakur
ezazue, bada!: "El pueblo, los partidos
políticos y fuerzas sindicales vascas contesta-
ron masivamente al ASESINATO del ingeniero
SEÑOR Ryan condenando a sus autores; lo
ocurrido (?) con la MUERTE de JOSE ARRE-
GI..." Bapo, mutilok!! la ia ez da nabaritzen
zuen interklasismoa. Ryan-ena hilketa hutsa
delarik, Usurbilena aztertzerakoan kili-kolo za-
gozkigute. "Lo ocurrido con la muerte de
Arregui..." delakoa bada eufemismo galanta
berba ulergarria ez erabiltzeko. Ah!, eta non
utzi duzue "Señor", tratamendu errespetu-
tsua?

PSOE-koek ere ederto egin zuten. Basea ka-
leratu nahian. Arregiren hilketa salatzeke prest
jarri zen, aurreko egunetan Múgica Herzog-en
abisua ahanzten ausartuz: "Que den gracias a
Dios los apóstoles de la violencia de que no

nos encontremos nosotros en el gobierno...".

Horreur, Mujika!

Apezpikuek ere beren kondena azaldu zigu-
ten, baina "...cuando murió J. M. Ryan senti-
mos que algo se apagó dentro de nosotros..."
halako esaeraz lehengo lerroetan ezarririk.
Esan ez zigutena da Arregirenaz haien arima
kriseilurik gabe geratu zenentz.

Eta Arzallusen pellokeriari buruz, zer dago?.
"Tele-Norte"-en arengatu zuen: "Los que no
condenaron el asesinato del señor Ryan no
tienen derecho moral para movilizarse contra
esta otra muerte...". Jesuitaohiaren ultimatu-
ma. Ondo, motel, ondo. Eta lege antiterroris-
taren kontra jokatu ez zutenei nork emango die
ahalmen moralezkoa honetan sartzeko?.

Adizu, jauna: Berton, herri odoleztatu eta
apaiztsu honetan inork ez du moralezko esku-
biderik beste bat juzkatzeko. Eta zerorrek as-
koz guttiago!! Bestela, nork utzi zizun frankis-
mo berriaren politika zikinean sartzen, jenerala-
ren garaietan -

Eta bukatzeko, JAUN OHORAGARRIOK -
gerorrek dakizkigunok beren burua jo bezate
aipatutzat -, oinezkoen itaun batzu egin nahi
nizkizueke:

Hau, azken galdera,

- Arregirengaitik izandako manifestapenak eta
hantxe egindako oihuak kontutan harturik,
zergatik ez diozue berriro "terroristak" bazter-
tuta direnik?.

- Zergatik ez zenuten jokatu lege Antiterroris-
taren kontra.

- Zer pentsatzen zenuten eztabaidatu zenean.
Zergatik BAIETZA edo ta ABSTENTZIOA
—hau askoz koldarragoa-eman zenioten.



- Non ote zegoen "nuestra solidaridad con
los otros pueblos de España" A. Rueda eta
GRAPOko España hil zituztenean?

Ez ziren gizakiak ala tortura salatzeke euskal-
dun martiri bat nahiago zenuten?.

- Zegatik ez zarete Zizurkilgo elizaren lehen-
go eserlekuetara abiatu zuen krobata eta keinu
tristeez?". Terroristekin" ez nahasteko? Hara
bildutako "jendoilaren" arnasatsaz kutsatzeko
bildur ala?. Izan ere, Areitiorn dentrifikoa fres-
koagoa ote?

- Eta, azkena: Arregirengaitik izandako mani-
festapenak eta hantxe oihukatutakoa kontutan
harturik, zergatik ez diozue berriro
"terroristak" baztertuta direnik?

DRUIDA



BATAIOA, AZKENEZ

"Euskal" adjetiboa merezi duten aldizkari gutti horietakoa dugu "Jaunaren Deia" Euskara idatzia baita. 6 hilabetero irtetzen da Jaunaren Deia, Euskal Teologoen aldizkaria, Lazkaoko San Benitoren semeek atondua.

Apaz, fraideentzako ez ezik, Peraltaren markes izandakoak (hots, Opustarren "aitak") deitu ei gintuen "tropa"ren kristauontzako irakurgai interesgarriak benetan.

Urtarril-Ekaineko aleko "Gure Liturji-Lanak" artikulu bikainean, Mezako liburuen euskeratzearen historia bizia hartu du gaitzat eginkizun hortan aritu direneta-kobatek: Manuel Lekuonak.

Berak dioskunez, lau izan ziren Erromak itzulpenari eskatu zizkion baldintzak: 1) Fidelitas cum originali 2) Popularitas, simplicitas, claritas: "izkera errikoaia, errexa, argia izan dedilla" 3) Dignitas, gravitas; izkera itzal eder batekoa, izan dedilla, onestasan eder batekoa, arlotekeriarik gabea" 4) Versio unica est pro una quaque lingua: "izkuntza bakoitzak itzulpen bakarra izan dezala".

Lehenengo hirurak betetzeko problema handirik ez omen da izan. Laugarrenez, itzulpen bakarra izan dadila halegia, ez daiteke beste horrenbeste esan. Zergatik? Bete ez delako, noski: Euskara Batura jo beharrean euskalkietara jo zuten itzultzaileak, herrikoitasuna (bigarren baldintza) batasunarekin (laugarrenarekin halegia) ezkondu ezinean aurkitu ziren eta.

"Erromak ezarri zizkigun lau baldintza auek(-) exejesis onean, baldintza koordinatuak dira, alkarren artean koordinatuak. Bigarrenari laugarrenak kalte egiten badio, irugarrenak bigarrenari amore eman bear dio. Konkretuki, errikoitasunari batasunak kalte egiten badio, batasuna bazartu bearra gertatzen da, gure lana, gure Itzulmena errikoia gerta dedin" (115-6 horrialdeetan).

Beraz, inolako "gravitas" bage eta Erdaraz Euskararen arazoak erabili ohi dituzten jaun-andereen Herrikoitasuna-Batasuna dikotomia maitea.

"Neurri oietan zer-esanik ez dago, "Batua" deritzan euskalki berri ori ezin sar ditekela Liturjiaren Itzulmenetan. (...) Batua-ren formak beste forma guztiak bario atzerago bilakatzen dira Itzulmen gai ontan. Ez dute Errikoitasunik".

Hau guzti hau Batuaren formak Enpireotik edo ekarri izan bailira bezala. Nola jakin zuten BATUAK herrikoitasunik ez

duela? Herriari berari galdetu ote zioten? Ez baldin bere. Ez Ikastolako, ez Gazteitzeko, Bilboko Euskal Herriari, Ez eta Gau eskoletakoari. Zein da, ba, herrikiogiagoa Euskal Herriko hiri askotan: Bizkaiera, Gipuzkera, Nafarrera edo... "Batua" deritzan euskalki berri ori?

Hitz batez, euskalkien arteko desberdintasunen aitzakiaz ez zuten onartu Euskaltzaindiak eskaintzen zuen hizkuntz-eredua, berak proposaturiko Euskara mota besterik ez genekienok Elizatik kanpoan geratzen ginelarik. Eta ez dezagun ahantz Elizatik kanpo ez dagoela salbamenik. Ene! Hau lana! Guztiz ulergarria zatekeen Mons Bugniniren harridura halako batasun bitxiaren aurrean.

"ea, bada, orren alkarren alde aundiko eta orren alkarren diferenteak diran Euskararen euskalkiak. Eta baietz esan bear esan genion".

Ulertuko zuelakoan nago. Izan ere. Italiako dialektuak elkarrengandik nahiko alden-duak dira, eta. Bugnuni bera italiarra da.

Hara nola esaten duen Torinoko hiztunak Boccaccioren zati bat:

I dio dunque, ch'al temp del prim Re d'e Cipri, dop che Giouffrè de Bojon a la conquista la Terra Santa, 1 è arivà, chè funna dèbona famia da Guscogna a lè andaita an perelinge al Sepolcro.

Kalabriarrak berriz:

Dunca vi cuntù, ch'alli timpi dillu primu Rignante di Cipru, justu vi, doppu chi Guffrido Bugghiune s'avì frunziata'a Terra Santa, successi shi'na signura di Guascogna (di quiddi bone) ivu mpiddigrinaggiu allu Santu Siburcu" (I dialetti delle regioni d'Italia. G Devoto G. Giacomelli).

Segur asko ulertuko ez zuena zera da: zergatik ez zen hizkuntza baturako itzulpena egin, Italian egin den bezalaxe, eta hizkuntza batua gogoak batzeko izan behar duen Elizak zer arraiogatik ez duen bultzatzen.

Gauzak honela, kristau bat baino gehiago poztu ez ezik, harritu egin zen 1980 an Euskal Herri osoko Elizbarrutieta-ko Liturgi Euskaratzaile taldeak Itun Berria Euskara Batuaz argitaratu zuenean.

Zer ba? "Batua" deritzan euskalki berri ori" Elizaren itzulpenetan?

Zer gertatu izan zen? Hitz laburrez zera: Euskara Batuak Elizaren bedeinkapena lortzeko behar zuen "herrikoitasuna" lortu izan zuela: Jainkoaren hitza entzun, za-

baldu daitekeela "gure elizbarrutieta euskaldunen artean askok eta askok biltzen duten euskaran" (Aurkezpena horrialdea).

Hortaz, azkenez sartu da Euskara Batura Elizan: bataiatu egin da. Eta gu, "asko asko", Euskararen, Euskal Herriaren batasunaren aldekoak harekin batera. Baturagarria!

Borja Barandiaran



Egun, nabaria da euskal artegintzari eruz dagoen liburu eskasia. Eta, honen bitartean, are gehiago zeramikari buruzko bibliografia. Esan genezake bakar bera besterik ez direla gai honi zuzenki lotutako zaizkion testuak.

Liburu hau, ahal den neurrian, hutsu hori nolabait betetzera dator.

Duen balioa bi aspektotan datza baita: alde batetik, izan dela Euskal Herriaren zeramika herrikoia adierazten digu. Beraz, bilerago Euskal Zeramika Herrikoiaz hitz egingo terik. Kontzepto hau, ez da generalizatu agertzen Penintsulako zeramikari buruz egin diren katalogo gehienetan.

Bestalde ere, eta bere izenburua adierazten duen bezala, lanabes bileragarria da gai honetaz arduratuak direnent lehen urratsak emateko orduan hauxe izan bait da egileen helburua.

Liburua egiteko asmoa antolatutako hiru kursoen ondoren sortu zen. Hauek 1977, 1979 eta azkenekoa 1980. urtean eman ziren. Lehen biak La Bisbal Zeramika Etxearen zuzendaritzapean antolatu ziren, eta azken urten honetan irakaslego guztia euskalduna izan da. Eta urte honetan hain zuzen ere, sortu zen testu moduratu bat prestatzeko beharra.

Egileak ez dira exhaustibotasun bila joan; helburua oinarriak finkatzea da, honen gain sor daitezkeen kritikak ongi etorriak liratekelarik.

Liburua, berez, kutsoan parte hartu zuten irakasleek idatzitako artikuluen bilduma da eta bakoitza bere alorreko espezialitateari lotu zaio. Artikulo hauek honako hauek dira:

- Leandro Silván: Kimika-Zeramika.
- Enrique Ibabe: Euskal Zeramika Herrikoien Historia.
- Angela Etxebarria: Esmaltea. Geruza beiaraztatuek eta margoak.

— Angel Garranza: Buztinak eta oreztadura.

— Pilar Alvarez: Tornua.

Liburua elebidun moduan agertu da, egileen nahiaren arabera, honela hobe kiago serbitzen zaiolakoan geure herriko kulturari.

Osagarri gisa, eta hasten direnentzako batipat, zeramikako materialak aurki daitezkeen fabriken eta denden izenak datozte.

Eta azkenik, bukatzeko, eskertu beharra dago Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialari, eman duen diru laguntzagatik.

tor bat erabiltzeko. Bai, baina zenbat itzulpen trakets, exotiko eta sofistikatu ikusi dugu antzeko gaietan? Buruan ba daukat nik pilo bat, aipatu egingo ez ditudanak hain zuzen. Aipatzeaz ez da ezer lortzen. Till Eulenspiegelek euskal itzulpenetan bide berriak irekitzen ditu.

Orain arte itzulpen ia guztiek euskararen egitura zaindu dute gehien batean.

Zaindu dutelako, delako egitura finkatu egin da, agian irmoegia gelditzen zelarik.

Baina beharrezko urratsa gaur egungo literaturan; itzulpenari, kreatze-lanari bide berriak zabalduz.

Egia esan, Till Eulenspiegel liburua nire eskuetan iritsi zenean, "ohi den legezko" itzulpen zehatz baina merke edo eta egiturategia litzatekela pentsatu nuen.

Erdarari, gaztelaniari, frantsesari edo eta nork jakin, alemanari lotuegia egonen zela burutu zitzaidan. Baina lehen kapitulutik aurrera asmo txar horiek desagertu zitzaizkidan eta nola baina!

Nik ez dakit nor daitekeen liburu horren itzultzailea, ez baitut ezagutzen —Txiliku— sasizen hori. Dena den, maisua dugu itzulpen lanean. Itzulpena barik, jatorrizkoa dela bene benetan ematen du. Euskaraz pentsatuta, mamituta dagoela arrazoi guztiaz esan daiteke. Till Eulenspiegel euskalduna da. Ez da alemana edo erdalduna. Argudia daiteke aukeratu den gaia aproposena zela euskara ja-

Till Eulenspiegelen euskararen mamia esaldiz esaldi aberastuz eta handituz doa. Jatorrizko esaerak ehundaka daude, atsoitzez eta ab.ez beteta dago liburuxka hau. Till Eulenspiegel beraz, artelana da. Egileak (itzultzaileak?) itzulpenen oinarria aurkitu eta finkatu egin da. Ez du asmatzen, ez du burutzen esaera majiko berri-rik euskaraz ipintzen. Benetako ikerpe lana du. Asmatu baino lehen euskaraz antzekorik ez dugula segura jakin behar da eta berorixe egiten du egileak.

Ez dakit zein izan den itzultzaileak hartu duen jatorrizko textua. Gaztelaniatik itzuli al du? Ba liteke.

Liburu honek abiada berria irekitzen digu: Bizitasunaren abiada. Eta liburua apala bada, "aurreikuste" handirik gabe egin da badago ere, hemen esandako guztiari ez dio horrek ezer kentzen.

T. Trifol.

Till Eulenspiegel



TELESFORORI

IRRINTZI BAT HORTIK DABIL
GUZTIOI DEI EGINEZ
ABERTZALEON GOGOAK
BETE DITU SAMINEZ,
EGIA DELA DAKIGU
TA SINESTU EZINEZ
GEHIENONTZAT AITA ZENA
JOAN ZAIGULA IHES.
BIHOTZA BETERIK DUGU
ZURE AHOLKU FINEZ,
GURE ARIMAN ZAUDE TA
NEGARRIZ EZ EGIN, EZ.
GURE ARIMAN ZAUDE TA
NEGARRIK EZ EGIN, EZ.

LAU FATA

Guatemalak zazpi milioi bizilagun dauzka, hauetarik lau milioi indioak direlarik. Indiook guztiz mesprezatu eta zanpaturik bizi dira eta mestizuak —“ladinos”— herriaren agintzaileak dira. Etnologo eta antropologoek haintzat hartzen dituzte indioak, baina zientzi aztergai gisa soilik. Elizek jarraitzaile fidel bilatzen dute haien artean, erlijiozko sektak ugari direlarik guatemaltar goilautadan. Oraindik ere armadarako soldadugai —indarrez soldadutzen dituzte— eta kafe, kotoi eta azukrekanabera uzte-tarako sasoiko langile gisa darabiltzate.

Guatemalan “indigenas” deitutako milaka indjo goilautadetatik Ozeano Bareko aldeetara jaisten dira urtero, kafe eta kotoi soro handietan lan egiteko. Beren lur txiki-tan daramaten laborantzak ez du bizitze-

ko adinbatekorik ekartzen. Artoa eta indababak edo bababeltzak —frigoles— ekartzen dituzte eta hauexek artopilekin batera elikaduraren oinarri garrantzizkoa dira.

Kostaldeko soro haundi edo landagunetan ematen diren lan-kondizioak ezin txarragoak dira eta tropikaldeko gaixotasunek, elikadura txarrak eta lan gogorrek erasotzen dituzte gizonok, aspalditxoan tximista bezain arin hiltzen zirelarik.

Esanekoak, leialak, manueraxak, jasanakorrak, baketiarrak eta bertutetsuak deitzen zituen Frai Bartolome de las Casas-en hitzak berak esan genitzake guk ere. Baina fatalistak izan behar, nonbait ere. Fatalismoak bizkarra zabala du. Jakina, jende fatalista bestea baino hiltzen, akabatzen errazago da.

EZKERTIARRAK ETA INDIGENISMOA

Luzaro mestizu ezkertiarrek pentsatua ezin egin zitekeela ezer indio hurrupatu, eta umilekin. Orain arte indar iraultzaileek mandako basagudu edo gerrilan, mestizu edo ladinoek parte hartu dute bakarrean. Ekialdean aterbeturik, herriska eta herri-kezketarik urrun zeuden. Halere, gauzak al-tuz doaz eta guatemaltar ezkerrek ulertu du indioen geldotasuna erantzun mota bat, zitzen segitzeko modu bat izan dela. Orain ere egin dute fatalismo famatuak bizitzaren heriotzaren ulerkuntza ezberdina, etorkizun-aren eta denboraren adiera berezia daramaten aldean. Bai, gertua da, indioak lau mendez zehar itxaroten ari baitira.

Gaur egun, balantzaren indarrez, indigena modatan dago intelektuaren artean. Indioak bazter utzitako meskizuek haiengana zentzen dituzte begiak. Indiar erakunde mis-



“Komunismoa akabatzeko eta askatasuna defendatzeko” odolhuste egiazko bati eman izan dio hasiera armadak.

MILIOI LISTA

riotsuak omen dira eta esan ohi da indiorik askok gerrilara, bereziki E.G.P. (Pobreen aldeko Gerrilarien Armada)ra jo duela. Gerrilariak herriska edo landagune bat zenbait ordur hartzen dutenean, herritarrei beren hizkuntzetan hitz egiten diete. Hala ere, mugimendu iraultzaileak, mestizuek gidatutakoak, oraino ez dira funtsean indiarak, zeren eta inork ere ezin izan baititu egundaino indioak organizatu, antolatu.

IZUIKARAREN HASIERA

Guatemaltar burjeseria, jeneralak eta lurja-beak munduko basatirik basatienak ditugu. Berton, Carter lehendakaria komunista bide zen. Argentinan baino lehen, jendea suntzierazteko izuikarazko metodoak asmatu dituzte. Dena 1954.eko Ekainean hasia da, CIAk sostengatu eta United Fruit Company delako-

ak ordaindutako merkenariak Jacob Arbenz koronelaren gobernamentua iraultatu izan dutenean. Hogeiren bat urtetan, gaurko gobernamentuaren bortizkeriaren biktimak hogeita hamar milatan jotzen dituzte soegile politiko zuhurrenek.

Nikaraguan sandinisten garaitia, Salbadoreen gerrilarien ofentsibaren gora jotzea, Estatu Batuetan giza eskubideen aldeko kanpainak, indioak antolatzen hasia (batez ere, 1976.eko lurrikararik hona, lankidegoak, berreraikitzerako batzordeak eta bestelako taldeak garatzea); hauek denok izan ditu Romeo Lucia Garcia jeneralak zapalkuntza gogortzeko kitzikatzaile eta zio gisakotzat. "Mundu libreka komunismotik askatzeko eta hura bera defendatzeko", odolhuste egiazko bati eragin diote militarrek.

Indioen kontrako mendez mendeko zapalkuntzaz gain ultraeskuindarrek eta armadaren

zenbait sektorek erabaki dute legezko ezker moderatuaren kide guztiak sistimaz hiltzea. Zozo eta inozoki, guatemaltar eskuinak eta jeneralak edonolako bilakaerari, nahiz baketierra edo erreformista den, ateak itxi dizkiote.

Ustez, Guatemalak "konstituzio demokratikoa" dauka. Lehendakariak erdiko politikaz gobernatu nahi du eta M.L.N. ultraeskuindar alderdia oposizioan dago. Baina honek ez du ardura. "Armada Sekretu Antikomunista" izenez sinatzen eta kaleak eta herriak gorpuz ereiten dituzten hiltzaileak, lasai asko ibiltzen dira gau ta egun, autoz eta metraileta edo fusila eskutan. Zer egin, bada, gizonaren biziak sos bat ere balio ez duenean, kristaudek demokratik parlamenturazten ausart ez direnean eta unibertsitateko sarratea tiraleku bihurtu denean?

Urteburutik hona berrogeita hamar unibertsitateko irakasle eta ehunen bat ikasle tiroz hi-



Indioak, gose, miseria, izulaborri eta bortizkeriaren jasaile ixil.

lak izan dira. Hamasei kazetari, hemeretzi gidari kristau-demokrata, hamarka ezkeriar gidari eta ehundaz sindikalista desagertu edo hilda aurkitu dira. Pentsa dezakeen edonor hila da hiri zein herrisketan. Ez dago aukera handirik: ixiltzea ala gerrilara pasatzea. Bestelakoan atzerriratzea.

Asko bai asko gerrilara pasatzen dira bizi beharrez, bakezko bilakaerarako ez baitago posibiliterik Guatemalan. Militarrek ongi dakite hau, oposizioa bi buru ezkeriar hilarazi baituzte: bata, mugimendu sozial-demokratikoa eta beste Iraultzarako Fronte Batuko lehendakaria.

Ba diote: "Garbitu egingo ditugu profesinari langile eta herritar guztiak, gerrilaren tresna edo laguntzaile direnak. Bai eta talde hoiekin harremanik duten lagun guztiak, haien bozemaile edo defendatzaileak. Unibertsitatea purgatu arte segituko dugu ekintzan".

EKONOMIA LARRI-LARRIA

Bestalde, krisi ekonomikoa ageria da eta gehituz doa. Hirurogeita hamargarren urtera arte, Guatemalak, Ertamerikako herrialderik aberatsena, beti jakin du baliabide berriak aurkitzen, hazi eta aitzinatu ahal izateko. Hauxe dugu kafearen kasua, koloregai sintetikoek gainbeheratu zutenean anilaren garrantzia, kotoiaren esplotarioarekin —hau berro-

Terrorismo instituzionalaren aurka, soldadu eta hiltzaileen beldurrik gabe.

geigarrenean gertatu zen hogeita hamargarreneko krisiaren ondotik—, eta kaferaren trafikoa hondatzearekin; hirurogeigarrenean transformazio —industria agertzea eta Ertamerikako merkatu elkartua sortzearekin. Halere, baliabide hauek guztiok urrituz doaz, asebetetzeko puntura heldu baita.

Gaur egun, guatemaltar ekonomia egoera larri-larrian dago. Lurjabeek ez dute esten lurretako langileen eskabideen aurrean eta armadako buruzagiak aberasten dira lur-soroak bereganatuz, indioen kaltetan.

Armadaburuek duten esperantza bakarra petrolioan eta Reaganengan dago kokatuta. Petrolioaz militarrek Eldorado berri bat amaitu egiten dute eta Reagani esker, militar laguntza gehitu egin da neurri nabaritan. Oraindik segiteko dezakete beren hartan eta gertakari horiek ekarri dien poza nabariki erakutsi dute armadako burjeseriek. Halabaina, oposizioak Reaganen garaitian beren porrokaldia ikusi dute, hau da, etorkizunerako mehatxu astunez kargatuta dagoa.

Miliana



AUZMENDI
Sastre on baten izena.



Oiga!


Vergara, I.
Donostiako estiloa.

PROGRESOA edo KLOAKARAKO IBILALDIA

"Il n'est jamais bien agréable de barboter dans les eaux troubles du pouvoir. Mais comme c'est l'unique moyen d'y voir un peu clair, la descente dans les égoûts s'avère nécessaire". (GUEULE Hebdomadaire-1980: Sekulan ez da pozgarri gertatzen poterearen ur uharreetan igerian izatea. Baina, zeozer argi ikusteko bide bakarra denez, kloakara jaistea beharrezkoa zaigu).

Orain dela gutxirarte poliziak erabiltzen zuten medioak, pistolak, matrakak eta txibatok baina ez ziren. 1968. urtean (urte horretan gertatu zen Maiatz Gorria) U.S.A. ko prokuradore generala zen Ramsey Clark jaunak honela zioen: "Aurkikuntza zientifikoek eta beraien aplikapen teknologikoez eguneroko aldakuntzetan murgildu erazten gaituzten bitartean, jurisdikzio kriminalaren sistema ez da oraindik metodo horiek ukitua izan". (Crimen in America).

Hala ere, azken urte hauetan panorama zeharo aldatu zaigu. Lehen estatu batuetan erabiltzen ziren "metodo" berrien azterketa hasia da. Ustez "kriminalitatea" gizartearen gainetik bezala desagertarazteko zena, orain gizartearen barrena gertatzen diren era guztietako borroka kontrolatzeko erabili da, edo beste era batez esanda ORDENA betiko mantentzeko.



REPUBLICQUE FRANCAISE

Préfecture de
PARIS

recto

N° 2000000130 Type - ID Pays F--

Nom
ALBERTINI

Prénoms
COLETTE

Né(e) le
12 JUIN 1958

Sexe
F

20 BASTIA

Nationalité
FRANCAISE

Carte délivrée le
01 JAN. 1970

Date d'expiration
01 JAN. 1980

Signature du titulaire

Photo 8

verso

Domicile

12 BD SAINT MICHEL
75006 PARIS

NIXON-en ADMINISTRAZIOAREN ON- DORENGOA

Aldaketa hau, 1.960. urtetik aurrerantz gertatu diren mugimenduetan datza. Izan ere, urte horietan, mundu osoan, baina batez ere U.S.A.n, poliziak desafio berriak ezagutu ditu: giza-eskubiderik eza Amerika HAUNDIKO beltzen ghetto-etan; Vietnamgo sarraskiaren aurkako erantzuna, batez ere, unibertsitateetan... Manifestazio hauen aurrean poliziak erabilitako metodo gogorrek (Txakur zakurrak, balak, lakrimogenoak...) gaitzidura ekarri zuten populazioaren parte handi batentzat. Honen aurrean postura bi agertu ziren. Batetik, tentsio hauen kausak, gizarteak minoriekiko zeukan zuzengabeko jokabidean dautzala esaten zutenak, eta bestetik, zapalkuntza gogorragoaren alde zeudenak. Bigarren bide honetan zegoen gobernu eta hauxe izan zen 1.968. urtean Hauteskunde-garaian Nixon jaunak esan zuen sloganik adierazgarriena:

THE LAW AND THE ORDER (legea eta ordena).

INDUSTRIA BERRI BATEN BILLA

Amerikan erakunde berri bat agertzen da: LE-AA (Law Enforcement Assistance Administration = Legearen Aplikaziorako Laguntza-Administrazioa —LAIA—). Teorian, erakunde honen zeregina, kriminalitate eta borroka sozialen kausak aztertzea izan behar zuen, baina praktikan, Nixon-en garaian, erakunde burokratiko bihurtzen dute, polizia efikazago baten prestakuntza eta "materiale" berrien sorkuntza posibletu zituena. Bilakabide honetan ba dago egon beste faktore bat. Izan ere, proiektu hilargitarraren eta Vietnamgo eskusartze harmatuaren amaierak merkatu berri baten beharra dakarkie industria aerospazialari eta hainbat multinazionalari ere. **Eta merkatu berri hori LEGEA ETA ORDENA izan da.** Honek nahiko ondo azaltzen du azken bolada honetan poliziaren zerbitzuan jarritako bide elektronikoa; informatiko eta beste era askotako teknologiak.

LIBERTATE, FATALITE, KALAMITE.

Hortxe dago "La Douce France" IRIS-en zeinuaren azpian. 1.975. urtean IRIS-80 izeneko ordenadore bi ziren jarriak Pariseko Julen-Breton kalean, Prefekturak eta Barneko Ministeritzak erabiltzen zituztenak. Hasieran IRIS horik fabrikatzen zituen entresako teknikoak ziren ordenadoreak maneiatzen zituztenak; baina geroztik, desplazatuak izan dira eta egun, Barneko Ministeritzako "espezialistak" dira lan hori egiten dutenak. Honez gero, Parisaldeko agente guztiek EDOZERTARAKO fitxa "zulatu" bat bete behar dute, ordenadorearen memorian sartuko dena. Eta sartzen dena sartuta dago. Era honetan, autobideetatik, mugetatik, prefekturetatik, edonondik eta edonoiz eska dakizkioke ordenadoreari Urdia batez datuak. Honetarako karnetaren zenbakiaz baliatzen da tramankulua, berori "numéro d'identification nationale" bilakatu delako. Hasieran, ustez, "delinkuenteen" datuak sartzeko bazen ere, egun, era guztietako datuak sartzeko dizkiote: trafikiko-multak, ezaugarri fiskalak, egoera zibila, egindako bidaiak... Eta zelan ez!!! inmigrante guztien mugimendu guztiak hantxe direla!! Eman nahi duten azken pausoa, oraindik eman ez badute, hauxe omen da: La France osoko era guztietako artxiboak edota fitxeroak ordenadorean sartu eta berau La France osoko prefektura, eta jakina, entrespa (multi) nazionalizatu guztiakin lotu. Era honetan, ordenadorea bizilagunen eguneroko "gauza" guztietan erabil liteke. Esan dezagun, gainera, honelako ordenadore baten memoria amaigabea dela, erants dakizkiokeen ekipo osagarriak kontutan harturik. Eta gogoan daukagu oraindik Martin Villa jaunak Alemaniara egindako bidea eta handik ekarritako kableak. Eta seguru ere Gasteizen zeozer pentsatzen hasiak direla: "C'est la vie".

IDENTITE, MERDE, IDENTITE.


1.979.eko abenduaren 25'ean La France-ko Barneko Ministeritzak identitate-karneta berrien sorpena aldarrikatzen du. Berak zioenez, dispositibo osoa "Commission Nationale Informatique et Liberté" izeneko organismoaren kontrolpean geratu behar zen. Honez gero eztabaida batzuek gertatu dira hango parlamentuan, baina horiek ez diote erroari heldu.

Formaz aritu dira, besterik ez. Antza denez, "afera" aurrera doa eta laster ikusiko ditugu Iparraldeko anaiak karneta berriz jantzita. Hango aldizkari batetan (GUEULE) agertu den karneta berriare kopiatu bat edo aurkezten dugu hemen zuek ikus dezazuen, laster hegoaldera helduko zaigulako "esperantzan".

LABURPENA

Ez dago honetaz laburpenik esaterik. Dena dago kontrolatuta, gero eta gehiago. Baina antza denez, hori ez zaie askori interesatzen, "ardatz" izatea gustatzen zaielako.

Azken bolada honetan, Euzkadiko "reconversión industrial" hori sipatua izan da. Baliteke siderometalurgia hemendik kendu eta elektronikoa ipini gura dutela. Hori horrela bada.



SASTRAKA

MILITARRAK BETI ONDO

Airegarraioan (1) dagoen krisia argia da, eta 1979.ean irabaziak asko murriztu baziren, 1980.ean galtzen amaitu duten konpañiak ez dira gutxi, baina beste aldetik hegazkingintzan diharduten enpresa gehienek, batez ere handiek, inoiz baino irabazi eta salmenta handiagoak izan dute. Nola izan daiteke hau?, galdetuko du batek baino gehiagoak: ba, militarrei esker.

Airegarraioaren krisiaren zenbakiak hementxe ditugu: 1979.ean garraioa % 11 gehitu arren irabaziak asko gutxitu ziren eta 1980. urteko ihardunaldia zenbaki gorritan amaitu duten konpañiak ez dira gutxi: Iberia-k, Aviaco-k, Spantax-ek, eta Transeuropa-k esate baterako, ondo dakite hau.

Alde batetik erregaiaren (2) prezio-igoera dago (orain dela gutxi gastu guztien % 10 zena, gaur %30) eta beste batetik krisi ekonomiko orokorra. Hau dela eta, konpañiek modernizatu beharra daukate, erregai gutxiago behar duten hegazkinak erosiz, kompetentziari aurpegi emoteko; honela, I. Taylor Air Canada-ko presidentek, erregaiaren kostua oraindino 4 bider handituko dela uste du, eta honek ezinbesteko transformaketa ekarri beharko duela; Air France-ek adibidez neurri hauek hartuko ditu:

a.- kontsumo gutxiko hegazkinak erosi: Boein 707 batek, Boein 747 baino %40 gehiago

kontsumitzen du; Carabelle batek Airbus batek baino %51.

b.- Pisia kendu hegazkinei: hegazkin bat urtean 100 edo 200 kg. loditzen da konponketetan, eta kilo horiek urteetan zehar garraiatzeko gastua dakar, beraz, ahalik eta hegazkin berrienak erabili.

c.- Ondo aztertu hegaz egiteko erak: abiadura eta baldintza onenak hartzeak %3 gutxiago gastatzea dakar, eta Paris-etik Los Angeles-era tonelada bat erregai gehiago erosteko 500 Kg. gehiago erre behar dira.

d.- Lurrean, hegazkinak traktoren bidez garraiatu, reaktoreak erabili barik.

Beste konpañiak ere antzeko neurriak hartzen ari dira, baina ikusten denez, hegazkinak berriztea behar-beharrezkoa zaie, nahiz eta hauen prezioa inflatuta egon.

Beste alde batetik, hurrengo 10 urteetan, Hegazkingintzak, Airegarraio zibil eta militarrengandik hartuko duten eskariak 20 billoi pezetatakoak (1 lauki) izango dira gutxi gorabehera. Benetan eskari gozuak izugarritzko irabaziekaz amaitu duen arlo batentzat. I haz adibidez, Boeing-ek %57an gehitu zituen bere irabaziak, United Technologies-ek %39an, eta Rockwell-ek %48an; europarrak ez dira ibili hain ondo, baina hala eta guztiz ere, irabazi ederrak izan dute (2 laukia).

Konpañia zibilak hestu eta larri dabilta baina militarrek?, ba, hauek, ufa-ufaka berrak moduan. Alde batetik aurrekontu militarre igoera generala da, eta ondorioz, berrikuntza kanpaña bateri ekin diote mundu mailan, hainbat mila hegazkin erretiratuz (Phantom, Stear fighters, Jaguar, Mirage F-1 eta beste batzuk) eta gainera, "carrera armamentista" edo "harmen estropada" deitutako honetan hegazkinen eta misilen garapen teknologikoa itzelen koa denez eta dirurik faltatzen ez bazaie, auzorik orandik gutxiago, ba, gero eta material sofisticatu eta garestiagoagaz ornitzen ari dira.

Eta zirku eder honen erdian, zelan ez: guzergak ordaintzen, agian sekula (eta hala beste erabiliko ez diren hegazkinak erosteko, eta noz mala den moduan, inork eritzirik eskatzen ez digularik, zeren oso ondo dakigulako militarrek, haien erostetak zelan eta nori egiteko behar dizkioten jakiteko ez dutela inoren auzurik behar, eta oraindik gutxiago kontrolatzen nahiz eta billoiak (ez dakit nik diru hau zelan konpatzen den ere) egon erditik. Eta armamentario, detalletxo bat: gogoratzen zarete oraindik te bi Italian eta Españian zelako "eskandaloko" izan ziren Lockheed konpañia amerikarrak militarrei ematen zizkien soborno edo "eskupekoak" zirela eta?, eta harritu egiten zarete?

1) Transporte aereo.

HEGAZKINGINTZAREN MERKATUA 1980-1990 URTEETAN
(billoi pezetatan)
iturria: Lockheed

1. HEGAZKIN ZIBILAK		
1.1. Garraio laburra	1,48	%7,40
1.2. Garraio erdi-luzea	3,60	%18,-
1.3. Garraio luzea	3,48	%17,40
2. HEGAZKIN MILITARRAK		
1.1. Misilak	1,24	%6,20
1.2. Beste Hegazkinak	10,20	%51,-
Guztira	20,-	%100,-

HEGAZKINGINTZAKO LEHEN HAMAR ENPRESAK

iturria: Dossier-Mercado

	Salmentak (milloi pezetatan)	Irabaziak (milloi pezetatan)
1.- United Technologies (USA).....	647.700	23.205
2.- Boeing (USA).....	579.700	36.057
3.- Rocwell (USA).....	460.700	18.632
4.- General Electric (USA).....	431.800	25.415
5.- McDonell-Douglas (USA).....	375.700	14.195
6.- Lockheed (USA).....	290.700	3.995
7.- General Dynamics (USA).....	290.700	13.209
8.- Aérospatiale (FR).....	192.100	136
9.- British Aerospace (G.B.).....	154.700	6.137
10.- Martin Marietta (USA).....	146.200	12.699

BANCO DE BILBAO
nire soldatak
lan egiten du.
Bitartean ni atsedenean.



Orain hileroko soldatetik abantail haundiagoak lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu, alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten bidez eskuratu nahi duzula.

Honela, zure soldata egunero lanean arituko da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero, lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu.

Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak, eskudirurik erabiltzeko beharizanik gabe. Bestalde zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen ordainketa, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua behar baldin baduzu nahiz gauzez nahiz egunez, 24 Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.

Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak zure soldatetik.

Eskura



delakotik zure soldata

BANCO DE BILBAO

Quim Pelegri dugu "Martí Mar-
co - Félix Goñi" kasu hori hauzi-
tegia jazan ondoren espetxera-
tua izan den Katalandar abertzale
bat. Espetxeraldi luzeak eskat-
zen baziren ere amnistiaren alde-
ko taldeen ekintzei esker jeitxi
egin dira, halan eta guztiz
Pelegri-ri fiskalak eskaturiko 14
urteotariko 4 dagozkio. ANAITA-
SUNAK elkarrizketa bat izan
du berarekin eta ondoren do-
akizue:

KATALUNYAN ABERTZALAN PRESONDEGIETAN

- Zergaitik zaude presondegian?

- Katalan independentista izateagaitik naukate gartzelaturik. Azken urteotako katalan independentista eta Español Estatuaren arteko dialektika aztertzen badugu, garbiago ikusi daiteke hau. 1976-tik gaurdaino iraultzaile independentistak eta Espainol Estatuaren aurka izan dira: bere konstituzioari ezetza eman genion (langile eta katalanen aurkakoa), Monkloako estatutoaren aurrean abstenitu ginen... Guzti hau ikusirik eta "Principat" entzestatuaren promulgatzearekin erreforma politikoa honen etapa bukatu denean (eta antzeko estatutoak badira, hala-hola Pais Valencia, Les Ills eta Pituisa-entzat) independentismoa hausturazko aukera argi eta garbi gelditu da, diktadorearen heriotza izan ondoren erreforma politikoa moldatu ezina.

Hau dela-ta Español Estatuak lehen gaur eta beti zapaldu eta zapaltzen jarraituko du katalan independentismoa. Errepresioa era askotakoa izan da (edozein eratako manifestapenekintzak galeraziz eta faxisten erasoan lagunduz...) Sarritan edonolako detentzio eta gartzelaratzak ere bai (gogora dezagun Lluís Monserrat urte bete baino gehiago kartzelan izanik kargunik gabe atera zela edo berriago den Serra haizparen akusazio gabeko detentzioa); beste atxilotze antzera gure atxilotzea kontexto honen barruan sartu behar da.

Independentista inguruetan detentitu guztien jokatibidea ondo ezaguna da. Gaur 25 independentista gaude atxiloturik.

- Independentismo kontzientzia nola hartu zenuen?

- Txikitandik sertutako prozesu bat denez gero, ez zait erraz egiten galdera honen erantzuna. Hamarren bat urte nituenean katalan aur-aldizkari bat irakurtzen hasi nintzen, hasieran, eskolan gaztelaniaz besterik irakurtzen ez zenez gero, ulertuko ez nuelako halako susmoa hartu nion; anaiak ekiteko esan zidan, baina hasieran konturatu gabe, etxean hitz egiten genuen hizkuntzan idatzirik zela eta ulerzen nuela ikusirik, egoera hura guztiz normala zela eta kontzientzia hartuz hasi nintzen. Bestelako bizipen asko baziren: nere aita lanik gabe ustea, Poliziak katalanez argitaratzeagaitik hertsu bait zuen editoriala, eta bertan aitak lan egiten zuen.

Zuzendu ninduten arrazonamenduak hain beste-koak ziren, non gaur ezinbestekoa iruditzen zait independentista izatea. Eta nire esperientziak eta ideiak politikoki planteaitu nituenez gero, horixe da naizena. Baina nire militantzia unibersitatean hasi zen. Han gure hizkuntzaren normalizazioarekin bereziki interesatuta zeuden jende talde ta aurkitu nuen; eta baita ere ekologismoarekin harremanetan hasi nintzen. Giro honetan harreman batzu izan ondoren, konturatu nintzen problema hauen soluzioa bereziki eta baita ere herri gisa ditugun beste problema guztien soluzioa borroka politikoa bitartez lortu behar genuela.

- Talde politiko batean zaude?

- Unibertsitateko lehen urteetan PSAN Provisionaleko militante izan nintzen. Lehen esan dudanez, gure hizkuntzaren egoeraz arduratzen nintzen batez ere, denbora haietan eta baita, arazo ekologikoek, eta gehien batean izaera itzulezina dutenez gero (adibidez, nuklearrak), horregatik ahal den modurik egokienean eta gaur soluzionatzera beharturik gaudela, bihar berandu izan daitekela.

PSAN - provisionala 1979an katalunya Nord OSAN-ekin elkartu zen eta prozesu honetatik "Independentistes dels Països catalans" (IPC) sortzen da. Gaur organizazio honetako militante bat naiz; nahiz eta presondegitik nahi nukeen beste lan egiterik izan ez. (organizazioan). Propaganda itxura izango badu ere, Euskal Herrira heltzen den informazioa faltsoa dela ikusirik, IPC mogimunduko militante bat naizela argieta garbi azaldu nahi dut, Frantses eta Espainol Estatuaren aurrean "rotura" politikoa garbi ikusten dugun bakarrak garelara, eta praktikan borrokarako berezko programa propioa daukagula, ez estatalista edo ez sukursalisten eraginik gabe.

- "Modelo" Presondegiko egoera nolakoa da?

- Beste Estatuako presondegietatik berezitasuna badu Modelok: bere presoekin, funtzionarioak faxta hutsak dira; Presoekin eskolatik ateratzean, ikaslerik faziak badakite bere metodo zaharrak gozatzeko tokirik egokiena modelon daukatela.

Gaur, Bosgarren galeria, Barzelonan tartekatutako Herrera de la Mancha-ren zati bat da. Beste problema batzu, osagile, laguntza eskasa, higiene

falta (larratoi, tximitzak haratustel itxuran), preso degiko tailerretan explotazio kapitalista, presoekin aldetik edonolako neurriak, eta abar eta abar dira.

Dena dela, borrokalari independentista naizenez gero, ezin nezake onartu Espainol Estatuako presondegi izatea, eta bahituri bat sentitzen naiz. Eta hau hori izanik, Estatuako presondegi guztiak berdinduzkoak izan behar zaitkit.

- Espainol Estatuako nazio zapalduen elkartzuna nola ikusten duzu?

- Gaur egun Espainol Estatuako beste nazioetarekin gertatzen denarekin gaizki informaturik gaude. Hala ere guztiz, gure arerioa Espainol Estatuaren izanik, baina elkarrekin jokatzeko indar berezia. Baina elkartzeko hau posizio nazionaletan oinarritu behar dugu, beste nazioetako borrokararekin errespeto berezi ba izan behar batez ere.

- Zelan ikusten duzu Euskadiko egoera?

- Esan nahi dut, katalan independentista bezala uste dudala, Euskal-Herriaren borroka adibide garrri bat dela, eta euskaldunak bere borrokan sakonduz eta aurreratuz izango direla benetan elkartzeko zaleak eta internazionalistak.

- Zer sentitzen duzu katalan bat Madrilera jurgatzean?

- Autonomiaren botere eskasari esker jurgatuta gaude Madrilera Otsailaren 18-an. Gobernu zentralak "Generalitat"-eri eman dizkion transferentziak barregarriak dira, eta gu zapaltzen jarraitzeko lagunduko dituen transferentziak berentzako gorde dituzte; errepresioaren tresna garrantzizko bat dago "Ley Organica de Seguridad Ciudadana", eta Madrilera dauka bera erabiltzeko eskubide bakarra eta beti.

Markatu dudun arrazoi honetatik aparte bada beste garrantzizko bat ere bai. Juizio egunean norberaren herri eta lagunengandik urruti sentitzea ez zait inori atsegini izaten, eta Madrilera egitearekin hori lortu nahi dut; baina "comites de solidaritat" direla hori koak juiziora presentatzea erabaki dute eta juizio honetan jurgatzen gaituzten bostontzat laguntza hartu behar izango da, dudarik gabe.

- Autonomiaz zer pentsatzen duzu?

- Bideitsu bat dala uste dut, hau da independentismoa.

KO AK RA ERE

ATIA SAINDUA

Eliza bateko buru den Juan Pablo II, Euskadira etortzekoa dela eta, aurretik jakin behar nor den, nolakoa den, zertara datorren, zer esango duen, etabar.

Bistan dena, gauza guzti horiek ezin jakin, ez bait gara iragarleak.

Hala ere zerbait ezagutzen genuen gaurko Eliza horren buruzagia, eta orain gehixeago noski.

Lehen bagenuen aitasaindu faxista bat, Paccelli Zeritzana, gero Pio XII ezagutua izan zena. Hark benedikatu zituen (eta ez benedikatu bakarrik) faxismoaren harmadak, "gurutzada" bihurtu baitzen.

Pertsonai ez halako Euskal-Herriko historiak zerbait esan dezake, ez haren ohorez.

Federikok ere, Krutwig-ek alegia zedozer badaki hartaz. Besteak beste, bere "Vasconia"n eta UZEIko Politika Hiztegian "faxismoa" hitzaren barnean badakar irakurgarria den pasarte bat.

Dena dela, hau ez da sekretu bat, ikusi eta entzun nahi izan duenarentzat.

Orain ordea, beste bat dugu, eta honek, bere aintzinekoek egin ez zutena egin du.

Apez zen gizon batek (jesuita kasualitatez), apezgoa uzten du "cuelga la sotana" (1) inongo dispentsarik gabe, eta Italiako Alderdi Komunistan sartzen da. Hori dela eta, Munduko Gerla izan, eskomunikatua izaten da. Gero ezkontzen da, zibiletik jakina.

Eta gero dator konponketa...

Asmatuko zenuten nortaz ari naizen!

Tondi-taz ari naiz noski. Baina hau ez da "peon caminero" (2) bat, ez da proletario bat, ez. Hori izan balitz, konponketa hauek pentsatzeagatik bakarrik, erotzat joko zuten, Horrelakorik...!

Tondi hau Erromako Gregoriana Unibertsitateko irakaslea zen, ez beraz nornahi. Eta kasualitatez bezala Pio XII —garrenaren aholkularia...

Sistema honetan nornahi ez denean gauzak errez konpontzen dira, bain hori: norbait izan behar.

Tondi jaunak beraz, ameztea iltzeko zorian zuela eta, aitasainduari laiotzat jotzeko eskatzen dio; baita egin ere; horrela elizatik (behar den bezala...) ezkontzeko ahalbidea emateko,

nahiz eskomunikatua, zibiletik ezkondua, eta apaiza izan...

Eta horra mirakulua:

Euskal-Herriko egunkari batek harrituta, txundituta hona zer dioen. "Y el nuevo Papa, Juan Pablo II, firme en no conceder la reducción al estado laical a los sacerdotes que lo piden, decide reintegrar en el ministerio sacerdotal al antiguo jesuita P. Tondi".

Eta beherago:

"La iglesia está llena. Son sobre todo sus antiguos compañeros de partido que él ha convertido al cristianismo".

Gauzak garbi daude orain. "Peon caminero" k ez du sekulan horrelako malabarismorik egiteko aukera izango, ez txikiagoak ere; baina Tondik bai. Zergatik?

Gizon hau azkarra izanik, PC-ko Komite Zentralego zuzendarietako izana eta "komunista" izatetik irten denak, badaki hori, mumu hori zer den; badaki hori gauza tzarra dela, iguigarria, deabru eta masoiena; badaki, bide horretatik teoria eta prasia baturik eraman ezker, gauzak bestelaka daitezkeela, iraultza egin daitezkeela; badaki bide hortatik jarraituta aitasinduek jai dutela; badaki...

Eta zer gauza hobeagorik, maniobra guzti hau eginaz antikomunismoaren bandera eramango duen gizon hau bedeinkatzea bezelakorik?

Nork egingo du hobekiago lan hori?

Orain hobeto ezagutzen dugu Juan Pablo II erreakzionarioa. Orain badakigu Euskadira, Loilako jesuiten etxera, etortzen delarik zer egin eta esango digun. Orain badakigu zertara datorren.

Ez dugu askatasunaren alde borrokatu behar, hori kaltegarria da, zeren Batikanoko feudoak klocokan jarriko baititugu; zeren sozialismoa, komunismoa gauza txarra baita berarentzat; zeren harmak, gurutzadetarako bakarrik balio baitute; zeren marsismoa bekatua baita...

Oskurantismoa, bai, hori bai dela gauza ona!
AMEN!


Harotza

1) Gaztelania herrikoiaz: Laisser l'état ecclésiastique.

2) Gaztelaniaz: Cantonnier.

ARTZAINAREN SEMEA

Robert Laxalt-en bide luze eta meharra idazlea izateko



1950. urtearen hasikinetan zen eta Robert Laxalt prest zegoen liburua sastegira (1) hartzeko. Urtebetea igarota zen eta ez zuen durarte inongo lerroalde erabilgarririk (2).

"Prest nengoen lantegia uzteko. Guztiz pertsonala zen liburua. Eta orduan idazmakina ondoan jezarrita, idatzi nuen *"Nire aita artzain zen eta beraren etxea mendia"*, eta esan nire neure buruari *Jauna, hau duk!*"

Sweet Promised Land (Aginduriko herria) zioa) Nevadako euskal historiaren atal bihurtu zen. Gizon baten kondaira egiazkoa da, Dominique, Laxalten aitarena. Baina era berean hainbeste artzain gazteren istorioa kondairatu du, Pirinioetatik Ameriketara migrazio zirena. Artzain gazteak gogoeta batekin hitzen ziren: diru nahikoa irabaz eta etxeratu atzera berriz joateko ametsarekin. Baina Dominique bertan geratu zen, harea eta txitxar larra (3) bezain nevadatar bilakatu.

Laxaltek bere lehen liburuak idazten zihartzeko egunak gogoratzen ditu, Morris Hall-erabarruetako beraren bulegoan atsedean hitartean. Bera unibertsitate-argitaletxearen zuzendaria da eta orobat Renoko Nevadako Unibertsitatearen idazle gomitatua (writer's residence).

Beraren liburuaren gomutak are biziagotuta dira orain, Argentinatik etorri berria. Argentinako azken *gautxoei* buruzko lan bat idazteko behar duelako *National Geographic* aldizkarietara jo.

"Ene aitak Argentinara joateko aukerak eduki zuen. Lan hau berarekiko zerbatzatzat hartu nuen. Beraren ezproinak esan nitezen" Laxaltek irribarre batez dio bere beharbada beraren sendikortasunaren ezaugarri terazteaz lotsaturik.

Bera ez da nevadatar jatorra, Kaliforniako Alturas-en jaio baitzen mundura 1923an, nezaritzaren kilimonaren garaian. Aitak artzain galdtu zuen, eta lau lagunetako senitartea (Dominique aita, Teresa ama eta haien seme biak, Paul eta Robert) arrantxurik arrantxurki ibiltzen ziren lana edireteko. Dominique-k zaldi zaintzen zituen eta Teresak janariak prestatzen arrantxuetako langileentzat.

Teresa izan zen, azkenean, familia toki batera ezarri zuena. Hazten ari zen familia, haren gero lau umerekin, Carson City-raino hartu zuen. Teresak erositako arroztegi bat, bereziki ere zuzentzen zuena, izan zen Nevadako etxeratu iraunkor baten hasiera. Dominique-k artaldeko zaiantzen jarraitu zuen neguko ta udako laneratik zehar.

Laxaltek lehendabizikoz Carson City-ko ikasketan ikasten ziharduen bitartean ukan zituen idazlea izateko gogoetak. Haren anaia Paul orain Nevadaren senadore federaleko batzorde-gegizona izateko zegoen, geroago anaia gazteagoak John eta Peter izanzen ziren bezala. Robert-ek ez zion inori hitz egin bere idazteko ametsaz. "*Oso harrokeria handia zirudien. Haren herri txiki batekoa nintzen*".

Autoreak oso bide luze eta malkarra (4) hartu zuen idazlea izateko. Laxalten amak seme guztiek hezkuntza ona hartuko zutela espero zuen. "Gure ama zena beti zebilen urrikigatzen unibertsitate-hezkuntza hartu behar gertatzen. Haren ustez, pertsona bat lan gogorraz eta..."

sankortasunaz aurrera egin zitekeen garaia joana zen ia".

Kaliforniako Santa Clara Unibertsitatean zegoen bitartean gerla hasi zen. Eskola utzi zuen eta aldi bat egin zuen Kongo belgiarrean, Estatu Batuen zerbitzu kontsularrean. Beraren soldadutza amaitsu zueneko, amak arrazoiak zeukala onartu zuen eta bere hezkuntzari ekin zitzaion berriz ere, Reno-ko Nevadaren unibertsitatean (URN delakoan). Bertan 1947an amaitsu zituen bere ikasketak ingeles, frantses, historia eta filosofian.

Idaztea ez zegoen oraindik Laxalten jomugetan guztiz itsatsia. Unibertsitatean egon bitartean, boxeoa oso gauza garrantzitsua bihurtu zitzaion. Beraren boxeokera toki txikienetan egindakotik eta urrezko eskularruak irabazte-raino zonan, eta berak ere Stewart-eko indiar taldearen boxeolari zuri saidun bakarria izate-aren ohorea zeukan.

Laxalt, metro betea eta larogei zentimetro gutxi gora behera, zabal, amoltsu (5) eta filoso-fiko ez da boxeolari baten irudiarekin ekan-tzen (6). Oraindik zergatik boxeatu zuen jakite-ko saiaketan dihardu. "Boxeoa... maitatzen nuen eta gorrotatzen. Laukira igoteko aurregoetoa gaixoa zen ia. Hala-ko lilura hilkor batez eragiten ninduen. Beharbada, neure buruari zeredozer frogatu behar nion".

Berak behin Mike O'Callaghan gobernadore ohiari (bera ere boxeolari izandakoa) zera esan zion, "boxeolari-oinarria edukitzea ez da gauza txarra idazlearentzat. Burmuinak zunpatuak izateak ezin zitekeen txarra izan".

Unibertsitateko lehen ikasturteak proba eta esperantzetako garaia izan ziren. Lanaldi erdi-ko langilea zen *Nevada State Journal* deri-tzon egunkarian. Udal aitari artzaintzan lagun-tzen ematen zituen. Azken urteetan, zeukan helburuagatik idazteko eramanen zuen eraba-kia hartu zuen.

Laxalt oso loturik zebilen artzaintzaren bizi-tzearekin, baina arrantxuko ardurua nagusia aitariena zen, eta Dominique nekatuz zonan be-rak bakarrik lan guztiaren pisua eramateko. Eta aukera eman zion semeari. Berak har zeka-keen artzaintzaren negozioa, edo eta ikasten jarrai; orduan artaldea salduko zen.

Robert Frost-en *The Road Not Taken* (*Hartu ez den bidea*) poeman bezala, Laxaltek gutxien ibilitako bidea hartu zuen eta arrantxua atzean utzi.

Laxalt ez da damu 1946an harturiko eraba-kiaz, halaz ere oso senditzen zuen arran-txuaren falta. Bera eta Paul, anaia, tristeziaz mintzatzen dira maiz artaldearen salmentaz, eta "gero nik barre egingen dut eta erranen: Jainkoa, gogoratzen haiz goiz goizetatik itzarri behar izateaz; eta lantzean behin oso hotz eta eskas zen kanpoan".

Mutilak, agian, arrantxua utzi du, ez baina arrantxuak mutila. Laxaltek oraindik zaldiak dauzka eta erregularki zamalkatzen du: "Oso bakemailea da niretzat zaldi baten gaine-an, bakarrik egotea. Bapatean zerua irekitzen da, eta inguruko nire problemak apur eta xume egiten ditu".

Berak ere halako irudi mendebaltar (wes-tern) gogorra onartzen du. *National Ge-ographic* aldizkariaren argazki bat, bera New Mexico- abelgorria zaintzen, Morris Hall-go beraren bulegoan eta halaber etxeko bebarru-koan zintzilikatua dago. Joyce, haren azken hogeita hamar urteetako emazteak "beraren irudi barneratua" deitzen du.

Beraren Nevadarekiko atxekimenduagatik, hutsarte, mendi, eremu eta desertu, toki garai eta lehorren maitasuna bezala deskribatzen duena, bera zen "Nevada" liburua, Estatu Ba-tuen bimendehurren nazionalaren liburua idaz-teko aukera bikaina. Berak ere dioenez, *National Geographic* aldizkariak izendatu ere egin du: "mendi edo zaldirekin zerukusirik ba-du, jo Laxalterengana".

Etxeko bulegoa, edo eta *zuloa* senitartekoak deitzen dutenez, Laxalten deskribaketa bere erara egiten du. Idazmakina zaharra harizkizko idaztegi batetan jarria. Lizeoan zegoelarik erosi zuen eta oraindik ba darabil, barrez dioenez "kondaira politik idazten dituelako" Harizki-idaztegi (7) hori umeetako etxekoa da. Eta aitaren unanprakak (8) zintzilikatuak daude brida eta zaldiburusirekin (9) batera.

Nahiz eta bere idazkuntzaren lehen urteak familian jarririko pisu handia legez gomutatu, Joyce ez dator bat. "Ez zen bat ere gogor. Etxean idazten zegoen eta beti helkor (10). Benetako aita ona zen" Haurrek bera behar izanez gero, beherantza joaten ziren eta bera-rekin mintzatzen.

Joyce-k dioenez, Laxalten idazkuntza gauza ona izan zen beren bizitzetan, hainbeste gauza irekiz esperentzia berrietako. "Lan bat egin behar baduzu, turista bezala bidaiatzu iku-siko ez zenituzkeen jendeak aurkitzen di-tuzu. Oso atsegina da idazle bezala gora eta behera ibiltzea".

Familia osoak-hiru ume dira, Bruce, Moni-que eta Kristen —urte bi eman zuen Frantzian (Iparraldeko Euskal Herrian). Laxaltek Fulbright dirulaguntza irabazita zeukan eta *Library of Congress* (Parlamentuliburutegia) delakoaren kontseilaria zen euskal kulturaren.

Euskal Herrian egon bitartean, Laxalt UNR (11)-en euskal ikaskuntzen programa baten sorkuntzaz ibili zen arduratuta. Bertan William Douglas aurkitu zuen, euskal ikaskuntzen programaren koordinatzaile aukeratua izan ze-na. 1967an URN-en ikasketaplanetan sartu zen programa. Ordutik Douglas-ek Laxaltek egin du behar *University Press*-en (Unibertsitate-argitaletxea) euskal liburuen sailerako aholku-lari.

Douglas biltzeaz gain, Laxaltek *University Press* hori berregituratu zuen lehenago zen berri —eta argitaralpen— sailetik. 1953an UPI agenzia utzi geroz, Laxalt estatupresonde-gian heriotzezigorren bētetzen ikusteaz lepo-raino zegoen, urtebete sartu zuen gobernu-agentziarekin. 1954an URN-en berri —eta argitaralpen— zuzendaria bilakatu zen.

Lirikotzan eta oso zaindu bezala deskriba-tzen du Douglas-ek Laxalten idazkera. Laxal-tek onartzen du ez dela erraz puntu horretaraino idazkeraz heltzea. "Lerroz lerro eta orrialdez orrialde izkiriatzen dut. Lantzean behin orrialde betea egiteko berrogeitaha-mar idatzi ditut lehenago. Urratsez urrats egindako aurrerabidea da".

Laxaltek ipuin bakoitzak bere giltze propioa duela uste du, bera kondatzeko bide beretzia "Hobe giltze hori aurkitzen baduzu, oste-rantzean galduan ibiliko zara zelai osoan zehar" Laxaltek Kontzentrazioa ez galtzeko *A man in the Wheatfield* (Gizon bat galsoroan) makinaz idaztean, orrialde bakoitzeko lehen lerroa majuskulez idatzi zuen: "Izan ere, zer kontxo erran nahi duzun"!

Laxalten idazkera filme bat bihur daiteke las-ter. Richard Colla-k, filmeproduktziogile eta zu-zendari beregainak, *A Man in the Wheatfield* elaberriaz filme bat egiteko tratua egin du. La-xaltek dioenez oso kilikatua (12) dago eta kon-fidantza osoa dauka Colla-rengan, liburuari fi-del izateko agintzen diona. Laxaltek ere *Sweet Promised Land*-erako filme baten aukera izen-petu du.

Douglas-en ustez, filmegidoien idazle izate-aren famak ez du Laxalt mainatu edo hondatu-ko. "Ez dut uste hainbeste aldatuko duenik. Honez gero oso estimatua da Ne-vadan. Bera, noski, famatua izan da bere erara. Ez dut uste, benetan, horrek bera-ren bizitza aldatuko dukeenik".

Laxaltek baietz dio: "Euskaldunak (bere buruaz mintzo) ez dira harritzen. Zerbaitek zure bizitza mugatzea ez da osasungarri".

Nahi eta ez, Laxalten oharrak beraren ondo-retasun kulturalera itzultzen dira, idatzi duena-ren gaia izan dena hein handiaz. Tradizioak besterik ezean onartzen ez dituela dio. "Zo-rioriontsua naiz, —ez, hori oso gastaturik dago—, gustura nago euskaldunazanik Arrazaren hainbeste ezaugarri maite egi-ten dut.


Idazleak azkenik bere buruaren irudirik hobe-rena New Mexico-ko betzainez (13) idatzi duena dugu: "Ilunabarrean utzi nituen he-zurkera nekaturik eta hautsez beteta, eta hirietako lanbidei muzin egin dien eta *Sangre de Cristo*-ko despopulaturiko ze-laietan askatasuna aurkitu duten gizon horiekiko bekaitzaz".

Irakurleak zoriontsu dira idazkuntzak az-karrago sakatu zuelako herrialdeak baino. La-xaltek dionez: "Herrialde honen —Nevadaren— kimika nigan dago". Kimi-ka horzabaltzen du idaztean.


Joan D. MORROW. RENO aldizkaria, 1980.eko Otsailean.

(A.E.k ingelesatik itzulia Jonsson Communications Corporation-en baimenaz)

- 1) Lohitara, lohietara, zaramara, Basura, "poubelle".
- 2) Baliagarrik.
- 3) Artemisa, Armoise. Zizarea = lombriz, c.
- 4) Maldaz beteta. Escabroso, scabreux.
- 5) Docil, paisible, afectuoso, bienveillant.
- 6) Ekandu = acostumbrarse, s'habituer.
- 7) Harizko idaztegia.
- 8) Unai + prakak = pantalones vaqueros, chaps.
- 9) Zaldi + burusia. Converture -oreiller, man-ta.
- 10) Accesible, disponible.
- 11) University of Nevada Reno.
- 12) Inquieto.
- 13) Behi + zaina.



L.A.- ANAITASUNA lehen pozikhartzen neban, baina gero PNV-en kontra eta hasi zan eta kaka zaharra. Alkarrerri joten hasten bagara, zer? Holan zer egingo dogu? danok galdu. Lehen asko gustaten jatan. Beti egoten nintzan noiz helduko, eta heltzen zanean hasi lehengo horritik eta akabaraino, baina gero PNV-en kontra... Ekarri egistazue hurrengoia ikusteko ea orain zelakoa dan, ea gustaten jatan eta atzera apuntaten nazan.



DIMAN DARREN ARTISTEN

L.A.- Bizi guztia Diman, bertotik urten bere ez. Soldadu bere ez nintzen joan, zera, corte de talla-gatik libra nintzan. Hamairu neba arrebak izan ginan, hamaika bizi, zazpi neska eta lau mutil, ni hurugarrena. Tallaten hamaika urtegaz ikasi neban, aitagaz. Beste anaiak bere ba dakie.

ANAITASUNA.- Joan zara inoiz eskolaren batetara talla ikasten?

L.A.- Ez, ez naz inoiz ikasten joan. Eskolara urte bete edo joan nintzan, Igorrera, gehiago rik ez, eta ipintzen zan urtearen amaieran dibujuen exposizioa, eta zer egin eusten? danak ohostu; eroan nabezen guztiak ohostu. Ikasteko aukerarik euki bere ez, hamaika ginan etxean eta. Dibujak eta modeluak lehengokoetan aitari ikasi zelan egiten eban, eta gero norberak apurka apurka asmatu.

ANAITASUNA.- Zenbat ordu egiten duzu lan egunean?

L.A.- Goizeko zortzietan hasi eta gaueko berderatziak arte, eguerdian ordu batetatik ordu bi t'erdietara deskantsatuta. Zapatutan horturara.

ANA.- Eta ematen du bizitzeko beste?

L.A.- Emon bai bizitzeko, hainbeste ordu egin ezkeru emoten ez badau, ba...

ANA.- Eta egunean zazpi ordu eginda atzeratu daiteke bizia?

L.A.- Zazpi orduetan behar egin ezkeru bai baina hasten bazara zigarro bat erretan edo berbaz, beste gauza bat da, baina zazpi orduetan behar egiten badozu, bizitzeko bai.

ANA.- Lan asko daukazu?

L.A.- Beharra sobran. Nahiz eta dormitorioak eta holako gauzak gitxiago egiten dira, ze, dormitorioak tallatuta karu urtetan dau. Gaur hortik aglomeratuak eta egiten dabe, en serie, makinakaz. Nik eskuz, eta materialak berak baliu dauenagaz...

ANA.- Zelan kalkulaten duzu prezioa?

L.A.- Egin eta gero: zenbat egun, material eta gastu, ba, honenbeste. Lana ikusten dauenak merke dala esaten dau, baina erosten datorrenari karu eritzi. Batzuk ez deitsoe arteari in-

ATIK ORREN A BAT

portantziarik emoten, uste dabe artea beste edozein lan lez dala, peoi baten moduko behar bat edo, askorentzat.

ANA.- Inoiz, nor edo nori eskatutakoa gutxi iritzi eta eman dizu diru gehiago?

L.A.- *Eskatu dotan baino gehiago ia inor bere ez. Pobreren bat bada igual, baina aberatsa bada ezer bere ez, aberatsak negar.*

ANA.- Zer egur erabiltzen duzu?

L.A.- *Gastañea. Orain sei urte edo Abadiñon erosi naben 60 m3 eta betiko daukot heurrekaz.*

ANA.- Horko armario handi hori norako da?

L.A.- *Durangorako.*

ANA.- Balioko du, e? Gutxienez berrehun mila, ez da?

L.A.- *Berrehun?, hortik. Honegaz ezin leike irabazi ezer. Arpegirik ere ez behar dana eskatzeko. Honek benetan balio dauena kobratu ezker, agur. Honeri beroneri erosi neutsozan 60 metro gastañak eta hortik, etxeko moduan edo egiten deutzat.*

ANA.- Ezagutzen duzu zure ofizioko besterik?

L.A.- *Hemetik ez. Andra Marin ikusi naben armario bat eta esan eusten Otxandioko batek egina zala, baina nor dan ez dakit, ez dot ezagututen.*

ANA.- Ze lan mota egiten duzu eta non daude?

L.A.- *Arotz-beharra, tallea, pintatu ere bai. Oso zabaldua dagoz. Elizetako lanparak, jarlekuak, altareak, kaixak, erlojuak, eta abar. Eli-zak, ba, Laukinizekoa, Obakoa, Artauneko, Ondizekoa. Gero hemeko Batzokia, Andra Mari jatetxean kaixa bat dago, bertako elizea tallata, Larrabetzuko txalet batekoak, Galdakaon kaixa asko.*

ANA.- Politena?

L.A.- *Politena?, behar bada etxeko salea.*

ANA.- Beti eduki duzu gaur duzun beste lan?

L.A.- *Ez. Francon denboran beharrik bere ez, lapurren moduan ibiltzen ginan honek gauzak egiten. Landa ez dozu ezagutzen? dibujantea, elizako kartelak eta egiten zituana?, ba, harek ekarten zituan berak dibujatuta "zazpiak bat"*



eta holako gauzak, eta noizik behin alkatearen andrea etorten zan hemetik eta, nongo eskuak dira honek?, Euskal Herrikoak dirala esan eta gero kaletik joatean alkateak arpegi bat...

ANA.- Lehen, magnetofonia martxan ipini orduko esan dizugu ANAITASUNA-gaz asarre zarela, zergatik?

L.A.- *ANAITASUNA lehen pozik hartzen naban, baina gero PNV-en kontra eta hasi zan eta kaka zaharra. Alkarrerri jotzen hasten bagara, zer? Holan zer egingo dogu? danok galdu. Lehen asko gustaten jatan. Beti egoten nintzan noiz helduko, eta heltzen zanean hasi lehengo horritik eta akabaraino, baina gero PNV-en kontra... Ekarri egistazue hurrengoa ikusteko ea orain zelakoa dan, ea gustaten jatan eta atzera apuntaten nazan.*

ANA.- Inori irakatsi diozu talla egiten?

L.A.- *Ilobak etorten dira batzutan. Igual ikasiko dabe, baina hiruretatik hasita futbolearen hasten dira eta futbolearen pasaten dabe bizia. Uste dot egunen baten konturatuko dirala honek balio dauela futbolan beste edo.*

ANA.- Exposiziorik egin duzu inoiz?

L.A.- *Igaz ipini gendun Batzokian eta aurte bere jaietan zeozer ipinteko asmoa daukot. Baten etorri jatazan ea joango naizen zapatu baten Sopelaneke ikastolara apur bat erakusten eta joango naz halako egunen baten. Eta Maiatzean ez dago Bilbon zera, "kilometroak" edo?, ba, Deustutik etorri jatan ba behar batzuk eroateko hara, eta eroan beha dotaz.*

ANA.- Zer, eta noiz arte beharrean?

L.A.- *Osasuna dagoen arte. Egunen batera gogoa badaukot, hor, azpiko dendan beha batzuk ipiniko dotaz gure dabenak erosteko Niretzat tallea janariaren moduan da, hau egiten goza egiten dot eta hemen egongo na osasuna dagoen arte.*

ANA.- Eta Andra Mari jatetxeko kaixari fotobatzu aterako diogula prometitua ondoren agutu genuen langile arrunt baina gizon eta artistak interesgarri hau.

Itsaso eta Harkaitz.

IRATI, JAIIO BERRI HORRI

I

Aspaldidanik geunden zure zai
azkenez ba zatozkigu,
ahoa lasai, irri alai batez
guztiori zabaldu zaigu;
heriotza gaur berriro ere
da bizitzaren gatibu,
mundu hontako legea baita,
bizitzak irabazi du.

II

Mundura heldu zara etenik
zure gordailu beroa,
hau baino hobe ez al zenuen
lehen zeundeneko linboa;
hango bizitza zer den ez dakit,
baina zaila da hemengoa,
jaio ta heriotzarainoko
arineketa zoroa.

III

Zapaldu behar dugun bidea
ez uste leguna denik,
zutik irauten izaten dugu
gizakiok nahiko lanik;
nola erakarri zaituzte hona
gordintasun hau jakinik,
bidea zuri eragiteko
eman al duzu baimenik.

IV

Bizi behar dugu eta goratu
naturarekin batera,
mundu honetan urte batzutan
administratzaile gera;
gure izadia tratatzen dugu
etsaia balitz bezala
ta horrela goaz, hain zoro gara
geure burua hiltzera.

V

Hazkuntza eta progresoaren
morroi al gara biziko;
ezjakinaren sokaz lotuta
izadia dugu ito,
aire ta lurra, dena pozoinduz
izango al dugu nahiko,
guk lurra ama dugula nonbait
ahaztu zaigu betiko.

VI

Ikusten duzu, haurra, hemen dena
dela zentzugabekoa
aspaldidanik ahantzi zaigu
behar zen errespetoa,
nagusi bati eskaintzen zaio
guk gaizki egindakoa,
beste batzuren artean hemen
"konfort" dugu jaungoikoa.

VII

Ba da, bai, jaunik, ez guti ere,
nor ez da hauen zalea
"demokraziak" herri askotan
eskaini du saporea
giza bizitzak sagaratzeko
jaso diote altarea,
zer kolore du, nork ikusi du
zer ote libertadea.

VIII

Zoriontsu nahi baduzu izan
egingo dizute uko,
kasu egiten baduzu ez
zaizu ezer gertatuko,
suge maltzurrek hilko zaituzte
bizitzen utzi orduko,
hipokresiak begi zorrotzez
zehazki begiratuko.

IX

Hona hemen zer biziko duzun
handiago zarenean,
hainbeste aho histeriko hor
irtengo zaizu bidean,
zitalkeria ugari dela
dakusazun bitartean,
gorrotoa maitasuna dela
sinestarazi nahiean.

X

Erakutsiko dizu nagusi
jaunak bere zigor latza,
emakumea zarelako ere
lotsaraziko, neskatzka;
goitik begira jarriko zaizu
nahiz ta zuk burua altsa
ta dastatuko duzu euskaldun
izatearen garratza.

XI

Baina bizitza bestirik ez da
hemen denok daukaguna
eta horri lotzen gatazko fin
izan arren oso astuna;
erpeak zorrotz, begiak erne
hartuz ematen zaiguna;
ez dugu etsiko, bizi gaitezen
maite dugu maitasuna.

XII

Zure geroa zein izango den
hala ere inork ez daki,
zorion oro opa diogu
zu bezalako ume bati,
ongi etorri, haurtxo maitea,
gure bihotzaren zati,
maitatzen dugu bizitza zinez,
maite zaitugu Irati.

Xabier Zorrotza

BIZI DEZAGUN EUSKARAZ

Bizi moduak aldatuz badoaz, hizkuntzak ez dira aldatzen horregatikan abiada berean. Seguraski "Akerraren adarra baino gaiztoago", Tejero edo eta multinazionalak daitezke. Hala ere, hizkuntza guztiek memoria handia dute. Gureak ere bai. Hori dela eta, besteek erabiltzen duten memoria hori, geuk ere erabili behar dugu.

- ¿Quién te ha pedido que intervengas? _____ Nork eskatu dizu parterik hartzeko?
 ¿Porqué tienes que entrometerte? _____ Zergatik sartu behar duzu eskua?
 Y a tí, ¿qué te importa? _____ Eta zuri zer?
 Caerse de bruces: _____ Sudurrez gainera erori
 Es que no se puede: _____ Ezin da eta
 Es que así no se hace: _____ Horrela ez da egiten eta
 Es que mi hermano está enfermo: _____ Anaia gaixorik dut eta
 ¿Es que no te das cuenta? _____ Ez zara konturatzen ala?
 ¿Es que te da igual? _____ Berdin dizu ala?
 En lugar del blando prefiero el duro: _____ Biguna barik, gogorra nahiago dut
 En lugar de tu tía puede venir ella _____ Izekoa barik bera etor daiteke
 Esto sí que está bueno: _____ Hauxe bai dela handia!
 ¿De qué te ríes? _____ Zeri egin behar diozu barre?
 ¿De qué te quejas? _____ Zertaz kexatzen zara?
 No corras! _____ Ez joan arin!
 Como corre! _____ Bai arin doala!
 No tengo tiempo ni para reír a gusto _____ Nahi adina barre egiteko astirik ere ez dut!
 Me has hecho daño _____ Min eman didazu
 Darse un golpe _____ Kolpe bat hartu
 Hacerse daño _____ Min hartu
 ¡Y que me importa que me vean! _____ Eta zer dit inork ikusi arren!
 ¡Y qué me importa que lo digan! _____ Eta zer dit inork esan arren!
 ¡Y qué me importa que lo sepan! _____ Eta zer dit inork jakin arren
 ¡Y que te importa que lo saquen! _____ Eta zer dizu inork atera arren
 A mi no me importa _____ Ez dit axola
 Alegrarse _____ Poz hartu
 Sin dejar de caminar _____ Ibiltzeari utzi gabe
 Sin dejar de hablar _____ Hitz egiteari utzi gabe
 Sin dejar de comer _____ Jateari utzi gabe
 Tenemos mucho que contarnos _____ Zer esanik asko dugu
 A esto hay que sacarle jugo _____ Honi koipea atera behar zaio
 Un día es un día, hombre! _____ Egunari bera eman behar zaio, motel?
 Eres más malo que la sarna _____ Akerraren adarra baino okerragoa zara
 Tienes algún contratiempo _____ Ezbeharren bat al duzu?
 Estar en el quinto pino: _____ Lekutan egon
 Viene en plan de chufila: _____ Jolaserako gogoaren bizarra dakar
 Algo está tramando ése _____ Honek buruan zerbait darabil ba
 ¿Qué estás tramando? _____ Zer darabilzu buruan?
 Me tiene tirria _____ Begiz jo nau
 Está en carne viva _____ Azal gorrien gainean dago
 "Quien con niños se acuesta cagado se levanta" _____ Datzanak orekin (zakurrekin)... jeikitzen kukusuekin
 "El que dice lo que no debe, oye lo que debe" _____ Esaten duenak behar ez dena, entzun dezake behar duena
 Quanto más arriba más dura será la caída _____ Igotea gora go, eroria dorpeago
 Hiru belarritan iragan hitz ixila orotan lasterka dabila



Gurera haize berriak ekartzeko baino ez bada ere, munduan zehar dauden dibortzioari buuzko jarrerak ezagutzea beti dugu komenigarri. Ezagutzen diren eritzi guztiak bat ez dagozela esan behar dugu aurretik, baina jehienetan badugu zerbait orokorra dibortzio onartzeko orduan: tratu txarrak, infideltasuna edo/ta elkarrekin ezkontza haustea erabagitzen denean.

Belgikan, adibidez, elkarrekin ezkontzan haustea erabagitzen denean notario batekin mango du azken hitza urte bi igaro ondoren. Irteotan, bestalde, ugaritu egingo dira Estatuaren partetik, arazoa hautsi aurretik, konponbide batetara heltzeko ekintzak, baina ez orra gertatuko balitz konponketa hau, automatikoki hartzen dute senar emazteok dibortzioa.

Mexikon kostitutioak legeztatzen du dibortzioa eta zibil botereak erabagitzen ditu dibortzioaren ondorenak (bai seme-alaben etorkizuna bai batekin edo bestekin edo/ta ekonomikoak akordioak nola egin behar dituzten).

Austrian dibortziora heltzeko ez dute zertan estean (beste ezkontidearen, noski) hutsurik azaldu behar. Herrialde sozialistetan dibortzioa onartuta dago, baina Estatuak beste konponbideak fomentatzen ditu horrelako erabagietara heldu aurretik. Dena den, dibortzioa iritu behar baldin bada, hiru iletan lor daiteke emerik ez balego. Seme-alabak egonez gero,



beste lege batzuk zaindu behar dituzte banandu aurretik. (Dena den, emaztea haundun dagoen bitartean, ezin eska dibortziorik, ezta umeak urte bat burutu artean).

Frantzia elkarrekin hartzen baldin badute erabagia, ez dago ezelako arazorik lortzeko. Bestalde batetik, posiblea da dibortzioa lortzea bai adulterioagatik edo tratu txarragatik. Ingoterran, kasureko, elkarrekin erabagiez gero eta urte bitan banandurik bizi, ez dute hauzitegiarenean joan behar.

Ameriketara nahiko zabaldua dago elkarrekin erabagiera hori, zibil ezkontzetarako noski. Venezuelara orain dela 30 urte ezagutzen dute dibortzioa. Brasilen zibiletik nahi duzun bitartean ezkon daiteke pertsona (bai ezkontza eta bai banandu). Txilen, adibidez, ezkontza zibila izaten da gehienetan eta ezkontza hausteko, Estatuak hartu behar du azken erabagia.

ETXE INGURUAK

Munduan zehar ibili ondoren Espainiako Estatuan zer-nolako asmoak egon diren ikusteari ekingo diogu orain. 1976. urtean Punto y Hora aldizkari hortan honelako esaldi bat aurkitzen zen: "Senar emazte biok elkarrekin erabagi-

Gure inguruetan dibortzioa bekatutzat hartzen den bitartean Venezuelarrek 30 urte daramatzate dibortziazten eta ifar Europan hiru astetan bete daiteke burokraziak eskaturiko papernahaste guztia.

Senar emazte biok elkarrekin erabagitzen baldin badute ezkontza kaustea nork asma dezake eskubide hori uka diezaiokeen lege bat?

zen baldin badute ezkontza haustea, nork asma dezake eskubide hori uka diezaiokeen lege bat? Dena den, orduan nahiko zabalik aurkitzen zen ondorengo jarrera hau: Nahiago da maitasunaren birjaiotza bat lortzearen alde ekitea ezkontza gaizki doanean fikzio juridiko bat gorde nahi izatea baino. Horrek ez du esan nahi seme alabak daudenean dibortzioa ezin

baina gaur egun ikusi dugunez ez da horrela portatu. Aldi honetan kristau askok maitasuna zela ezkontzaren oinarria aditzera ematen zuen eta banatze ezin hori, oinarri bat baino egiteko gelditzen zen lan eta desafio bat zela.


Aldi honetan ere, Jesus Lezaunek dibortzioa nahi duenarentzat egiten den posibilitate bat

"Maitasun gabeko ezkontza ohiadego bat da" — San Zipriano".

besteko gauza bat denik, argi dago seme alabei etorkizun digno bat eman behar zaiela, eta dibortzioa egituratu behar luketen legeek konstante hartu beharko lukete arazo hori, noski.

1977.eko Urtarrilan Espainiako Eliza nahiko adikorra izango zela uste zuen jende askok,

zela esaten zuen, dibortzio egoteak ez zuen esan nahi jende guztia banandu behar zenik *"Inork ez du —esaten zuen— beste inori dibortzioa ezartzeko baimenik, baina inork ez du ere eskubiderik maitasunik ez dagoen toki baretan ez banatzea eskatzeko"*.



Eskontza: Maitasun ala kartzela?

Orduko eskabideak honexeeek ziren: Dibortzioaren legea sortzea, bai zibil mailan eta bai erlijio mailan. Bestaldetik normaltzat hartzen zen, ezkontza moeta biok onartzea, bai Elizan egina bai zibiletik egina (eta onartzeaz batera medio eta bideak jartzea).

Historia antzeko hau egiten ari garela jar ditzagun 73.eko Irailan argitaratutako inkesta baten datuak, inkesta hau Nafar Elizbarrutiko soziologia ta estatistika bulegoak eta Espainiako estatistika eta soziologia bulego orokorrak egin degu. Datuon artean azpimarra dezagun berrogei urtetatik beherako andrazlegoaren % 50a dibortzioaren alde agertzen zela. Bestalde batetik, hiririk handienetan jendea dibortzioaren aldekoago agertzen zen txikitzen baino eta gazteak ziren dibortzioaren alde gogorren jokatzeko zutenak.

81.a aztertzen dugularik, hona hemen Gallup inkestaegileak argitaratu emoniko datuak: Aurtengo Urtarrila %65a agertzen da dibortziaren alde Espainia osoan. Gehien eskatzen dutenak komunistak, sozialistak eta nazionalistak dira baina gutxien eskatzen dutenak "Coalición democrática" aukeratu dutenak dira, UCDDko lagunak, bestalde, baietzeari eta ezetzeari zatitzen dira. Azken datu gisa ikerturiko %90ak bere burua kristautzat hartzen du nahiz eta haien artean erlijioarekiko jarrerak ezberdinak izan (%65 praktikante baitager, besteak ez hainbeste agertzen diren bitartean).

DIBORTZIOA EGUNGO GIZARTEAN

Dibortzioaren oihartzunak kaletar direla argi eta garbi ikusten dugu edozein egunetako egunkari eta aldizkaritan. Gizartearen mailan zabaldu den arazoa baldin bada gizartearen gainetik dagoen instituzio batek zuzendu behar ditu huts eta akats guztiak, eta gure kasu konetan argi dago Estatuak bere parte hartu behar duena arazo sozial hontan.

Gai honetan, orduan, instituzio bi ikusten ditugu; herri bakar batek eskatzen duen gauza baten aurrean. Herri bat da dibortzioa eskatzen duena eta instituzio bi legeztatzea nahi dutenak (Estatua eta Eliza). Horrelako hauzi bategan norberak bere burua zaindu behar du bestearena liburu uzten duelarik. Estatuak 30 eta piku miloi jendearentzat atera behar digu lege bat; multzo horretan, kristauak, beste erlijioetakoak eta ateoak aurkitzen direla, eta hemen lege bat izango da. Elizaren kasuan legea ezberdina izango dena badakigu denok, baina horrek ez du esan nahi Elizak eginiko legea Estatuaren legearen oinarria izan behar duenik. Gauza bakoitza bere tokian eta madariak Abenduan.

78an hauxe esaten zen: *"... epaileak ezin izango dio ezkontzari erreztasunik eman ezkontzak era hutsuna izan arren ezkontidetarik batek uste onean hartu baldin bazuen ezkontza bera"*.

Azken artikulua 81a dugu, honetan ezkontzaren hausketaz ari zaizkugu legegizonak; dena den, artikulua jarri baino lehen PCE eta PSOEko arduradunak, ezkontza hausteko eskatzen den urte beteko epearen aurka jarri zirela esan dezagun. Artikuluan hauxe aurki genezake: *"Ezkontza moeta edozein izanda, epaiez-koki aginduko da banaketa: 1- Ezkontzaren*

ehen urtea burutu ondoren ezkontide biek esatua edo/ta batek proposatua eta bestearen baimenaz. 2— Ezkontide batek eskatua bestea onaketa legal hauzitan dagoen bitartean”.

“Sal comun” aldizkarian Fernandez Ordoñe-ekin eginiko elkarrizketa batetan agertzen zenez “Europar badira dibortzio aurrerakoiagoak eta atzerakoiak” (Kontura gaituzen Eskandinavian zapuzketaren bidez lor daitezkeen dibortzioak) Dena den, Europako herririk gehienetan, bai aurrerakoi eta atzerakoietan, dibortzioaren legeak berrikerketaldian aurkitzen dira, Ordoñeek esaten zuen bezalaxe... gure kasua une honetan, dibortziorik ez egoterik bobortzioa goteaz datza eta bigarren puntu lege ezkonta hautsi aurretik urte beteko epea eman gogotak egitekoan”.

Fernandez Ordoñeizen lege hau zabalduko alitz Espainian “familiaren etorkizuna konprometituta geratuko litzateke” esaten zuten aiparriko agiri horretan. Era honetara mintzatzean irten dutena dibortzioa anatematizatzea aino ez da eta ezkonfesional izan behar duen izarte honek ezin du horrelako tartekamenduk onartu.

PSOEk gotzaien agiria, desegokia, neurrigaia eta desfinkatzailea zela adierazten zuten. CEK, ostera, Elizak aurretik zuen demokrarekiko jarreraz aldatzea nahi zuela aipatzen zuten. Bitartean Fraga jaunak ontzat hartzen zuten apezpikuen erabagia.

Baina egia esan, Elizako buruak dioena eta eheko kristauak uste dutena ez dator beti bat, eta dibortzioaren kasuan gutxiago esango guke gainera. Abenduaren 13an agerturiko agiri batetik hurrengo ohar hauexek ateratzen izkizuegu (agiria, Herriko Kristau komunitateak eta Euskal Herriko apaizeen koordinakundeak sinaturik datorkigu).

“1-Edozein Estatuk du ezkontza hausteari buruzko lege zibil bat ateratzeko eskubidea osoa, eta gehiago gure kasuan Estatua plura-estatzat egituraturik baldin badago”.

“2-Nahiz eta kristautasunean eta beste erlijioetan ezkontzak sakramental nortasuna izan, erlijioek ezin dute heurrei bakarrik legokien lege bat Estatu osoan ezartzea eskatzerik”.

“3-Ezkontzaren haustezintasuna kristauei lagokien arazo bat baino ez da eta kristauak bereak zuzendu behar dutena baina kristauok ezin diote eskatu Estatuari haien lege berezia ezarriaz guztiei ezartzerik”.

“4-Guztiz inmorala da dibortzioak kalteak eta ondamenak ekar ditzazkela esatea”.

“5-Ezkontzaren naturari begiratu, ezin duzu ikusi ezkontza hauste kontsentsuala nola lebea daitekeen ezkontzaren natura bera izatuz”.

“6-Dibortzioak lortzeko epeak, laburrak izateaz gainera, merkeak izan behar dute”.

Gure ustez, nazional-katolizismoaren honarrek desagertuz joan behar badute, sakratu eta ezsakratuaren artean ezberdintasunek argi-iz, joan behar dute, eta dibortzioaren kasuak erabilite handiak ematen ditu hortarako.

Ikus dezagun azkenean kristauek gotzaien jarreraz uste eta argitaratzen dutena: “...kristauek ikuspegi batetik ezkontza guztiz haustezina erabakitzen ezin daiteke esan. Bai San Mateo eta bai



Gogorik gabe ezkontzeko arazorik ez, baina banatzeko orduan buruapurtu galantak.

San Paboren testuetan ikusten ditugu arazoi ezberdinak ezkontzak apurtzeko; zergatik esan behar orain salbuespenik ez dagoebanjelioetatik iritenda eta urrunago joanez?... Ezin daitezke testu sakratuak indartu ezkontzaren haustezintasuna frogatzeko testuok inguru sozialetik atereaz eta hasieran ez zuten helburu ta esanahiaz jantzirik... Ezin dezakegu ahaz ezkontzaren oinarria zein den: Maitasuna, eta ez kontrako edo ta sexunahi huts bat. Maitasun hau desagertzen denean ezkontzaren oinarria joan denez gero desegiten da ezkontza bera, San Ziprianok hauxe esaten baitzuen: “Maitasun gabeko ezkontza ohiadego bat da”.

ezkontideen eskuetan geratzen den instituzio bat. Beste interes batzuk, semealabena, giza-tearenak daude eta beroiek ematen diote ezkontzari instituzionaltasun hori”.

Dirudenez, eta 1979.eko kanpainan esandako sloganak aitzakitza harturik, UCDCk onartzeaz gainera berengantu dute: “Zibilara arautegiak ezkontza eta familiaren estabilitate zainduko du 1979.eko kanpainaren ispiritua dioden bezalaxe ez da onartuko ezkontideek elkarrekin erabagiko dibortzioa”, hauxe izan zuten zentristek argitaratutako agiria Fernandez Ordoñeizen legea ukatu ostean.

Inork ez du beste inori dibortzioa ezartzeko baimenik, baina inork ez du eskubiderik maitasunik ez dagoen toki batetan ez banatzeko eskatzeko.

DIBORTZIOAREN LEGEA U.C.D.ren 11garren KONGRESOAN

Fernandez Ordoñeizen taldeak gertatutako legeak ez ditu aurrez aurre PSOE eta PCkoak bakarrik baizik eta UCDCko hainbat kide ere: demokristauak eta Opus-zaleak hain zuzen. Segur dugu denok dibortzioaren legea UCDCtik iritengo dela, hala ere, alderdi horretan eritzi ezberdinak nabaritzen ziren 2. kongresu honen hasieran.


Orain eta kongresu hori bukatu ondoren, lehen lege honek atzerapen handia izan duela esan behar dugu. Arazorik larriena ezkontide biok ados egonda eginiko dibortzioa zen, eta botazio baten ostean erresultatuak argiak izan ziren: UCDC ez du nahi ezkontza haustea senar emazteen eskuetan usteriki horrela mintzatzen zen behintzat Escartin jauna: “Ezkontza ez da

DIBORTZIOA: BEHARRIZANA ETA ESKUBIDEA

Gaur egun pertsonak elkarrekin bizitzeko duten eratariko bat, zabalduena gainera, ezkontza dugu, eta gizateriak egindako guztiak bezalaxe bere akats eta hutsuneak ditu. Dibortzioak, orduan, ez ditu arazoak kentzen edo deuseztatzen; konpotzen baizik. Dibortzioak, aurretik egindako kontrato bat apurtzeko modua ematen digu, besterik ez. Kontrato hau apurtzeko dauden bideak kritikagarriak izan arren, ez da hau bere tokia, hel ditzagun orduan kontratoa apurtzeko jarri behar ditugun minimo horiek.

Zati bitan kokatuko dugu gure arazo hau, alde batetik sozial mailari dagokionez eta beste aldetik Elizari dagokionez, baina maila bietan gauza

Dibortzioa, bai zibila ta bai kanonikoa, beharrezko dela denok da ikuskegu, baina dibortzio duin baten bitartez bete beharko eskubide herrikoia hau.



Haurrak, arazorik handiena dibortzioa lortzeko.

bat dugu oinarriz eta beharrezko: diskriminazioz ez zabaltzea ezin ezkontiderengana.

Dibortzioa lortzeko kausa, era, semealaben egoeraz eta pentsioen kontuaz datza. Denei dagokionez, arin eta dohaina izan behar duela aipatu behar dugu. Dibortzioa, beste gauza asko bezalaxe (hala abortoa), klase pribilegiatuei dagokien gauzatza gelditi ez dadin. Banaketara heltzeko bideak luzeak eta karuak baldin badira, ezin ekonomiki mantenduzin duelako hain zuzen.

Kausei begira, jenderik gehienak onartzen dituen puntuetatik kanpo, tratatu txarrak, adulterioa, etab. at) beste puntu estabaidatsu bat gelditzen da: kontsentsoaz gertatutako hausketa. Maila honetan proposatzen duguna zera da: epaileak anulaketaren berrezagumenean ez lukela kausez galdetu behar, baizik eta ezkontideek dakarten eskabideari onarpena ematea, bestela galtzaile bat aurkitu nahi baita bion artean eta aurkitu nahi honek ondorio psikologiko txarrak ekar baititzake ezkontidetakoengan. Orduan, bada, senar emazteon elkarrekin izan duten bizitza hauzitara eramane beharrean, dibortzioa eman dezala eskatzen dugu (aipatutako arrazoikaitik).

Egia esan, gaur egun, ezkontza hausketak egin ondoren, txartoen gelditzen direnak emakumeak ditugu, azken batetan guztik marjinalizaturik gelditzen bait ira gizartearen begien aurrean. Egoera hori konpon beharrezkoa litzateke, honetarako seme-alabek norekin gelditu behar duten eta pentsioen arloak ongi (eta feministeki esango nuke) zaindu behar dira. Haurren kasuan normala litzeteki andrari ematea erabagiteko prioritatea, hura dedikatu baita umeeekin egotera denborarik gehienean. Eta pentsioez ari garela legeak gehiago lotu behar du gizona, berak eramaten baitu dirua etxera (zorion edo zoritxarrez) eta hausketa egitean andra dirurik gabe eta teilaturik gabe gelditi daitezkelako etxean egin duen lana ordaindua izan ez baita.

Orain arte dibortzio zibilaz ari izan bagara ere, ez dugu ahaztu behar dibortzio kanonikoa

inguruti dabilkigula katoliko praktikanteen artean %63a dibortzioaren alde agertzen da eta.

Eliza, Estatuak jarri behar ez luken premisa batetan, oinarritzen zaigu: haustezintasunean. Baina hau azkenean ez da fedearen prostituzio bat baizik. Nondik ateratzen ote du Elizak ezkontza zuzenbide naturalagatik apurtezina dela? Nola ezkontzen ote ziren kristauak XI. mendearen aurretik? Elizak ez du "dogma" gisa planteatu behar haustezintasuna "norma" modura baino, eta norma denez gero, alda daitezke gainera. Gaur egun Elizak daraman jokabideaz, koaktibo izatea nahi du elizaleen artean, dibortziari dagokion arloan. Orduan eta laburpen gisa, Eliza halako planteiamendua errebisatu beharrean aurkitzen dela esan dezagun



Eliza Parlamentuan sartuko ote?

(katoliko praktikanteen artean, %63ek dibortzioa eskatzen dutelako). Elizak, jendeak eskatzen dielako eta dogmarik ez delako, dibortziatzeko erak zabaldu behar ditu. Dibortziatu eta birrezkondu nahi izan duena katolikoaren komunitatean (ongi hartuak izan daitezkeen) bide herzkorak eraiki behar ditu.

Amaitzeko, era kontsentsuala (dibortziatzeko era kontsentsuala esan nahi dugu) ez onartzean, hausketaren errudun bat aurkitu nahi duela esan behar diogu Eliza ofizialari eta hori ez dugu uste kristaubidean onartuta dagoenik. Eta mesedez, Elizak kristau eta ezkristauen artean izan dezakeen prestigioa galtzea nahi ez baldin badu ez dezala utz hurrengo perpausa esaterik: "Ezkontzaren haustezintasunak ezfedunak ere ukitzen ditu; orduan Estatuak ezin du hartu berarentzat ezkontzaren lorriari buruzko legeak egiteko eskubidea" (Orenseko Gotzain Jauna).

Dibortzioa, bai zibila eta bai kanonikoa, beharrezkoa dela denok dakuskegu, baina dibortzio duin baten bitartez bete nahi dugu eskabide herrikoi hori.

DIBORTZIOAREN LEGEA ETA GOBERNU BERRIA

Dela denbora gutxi erregeak Suarezen ordeztuko bat aukeratu zuen Calvo Sotelo jauna zoriandua zelarik. Otsailaren 25an hartu zuen Calvo Sotelok bere agintaritzaz eta hori igarotzen arte ez dirudi dibortzioaren legeak parlamenturara helduko denik. Gobernuak presidenten berriak ez zuen nahi galdu boturik inbestidura hontan, eskaz ibiliko zenez ken ditzaizkiokeen arazoak boterea lortu eta gerorako utzi nahi zuten eta dibortzioa dugu maila hortan jaun eta jabe.

Gauzak honetan daudelarik, Villar Arregui jaunak (ezkontze abogatu) Fernandez Ordoñez jauna deitzen du elkarrizketa publiko batetara dibortzioaren lege hori kritikoki aztertzeko zuzenbide zibilaren ikuspuntutik. Aurretik badirudi ekintza hau nahiko argigarria izan daitekeela jenderik gehienentzat, baina beste herri eta kasuetan gertatu denez, ez al da izango maniobra bat jende arrunta estabaidaz identifikatu ez dadin? eta azkenean boto publikoren bat eman behar denean, ausartu ez daitezkeen, beste mundu bateko gauzaren bat bailitzan, dibortzioaren lege berari? Dena den eta beste arlo batetara igaroz esan dezagun 400 abogatu obispoek dibortziari buruzko lege hori kritikatzeko zabaldu duten agiri hori birkritikatzen dutela ondorengo eritziez: "...badakigu Elizak ez duela inoiz horrelako eskubide baten aldekorik ezer erabagi baina horrek ez du esan nahi zibilari dagokiguzan arloetan ezin eskubideaz sar daitezkenik"... dokumentu horrek geroago ta argiago erakusten digu lehenago aldiatar eskuma handia ta Elizaren artean sortu ziren hartuemanak oraindik bizirik daudela".

Dirudienez Calvo Soteloren gobernu berriari gehiago interesatzen zaio OTANeko arazoak etxe barneko baino eta sozialistek esaten zuten baliteke dibortzioaren legea pare bat iletan atzeratua izan, guk hemendik esan nahi duguna hauxe da: ez dadila pasa gure artean Italiarren artean, 1870 - 1921 bitartean, gertaturikoa; hau da, dibortziari buruzko 9 legek pot egin zutela eta 1970. rarte dibortzio legerik gabe egin direla.

J.I. Basterretxea

Komunikabideek urrats handiak dituzte emanak. Iku-sieziezko boterea baina nonahi aurki daitekeena, ba dauka eraginik guregan. Egun, gero eta metodo konplikatuago hornitzen da. Nork igar zeza-keen aurrerapen itzel hau Erdi Aroan, monjeek kodizeak lehenengo medio erabiltzen zituztelarik?

ESTATUA ETA INFORMAZIOA

Estatu komunikabideen botere izugarriak konturaturik, informazio bideak bereganatzen saiatu da betidanik. Modu horretaz, hark berak finkatu nahi duen pentsaera hedatzeko oso metodo egokia eridetean, bere kontrato erizien ororen zabalkundea —konpetentzia ideologikoa— desagertarazten ahaleginduko da. Hau gertatuta, bide libre edukiko du bizilagunen gogoak bonbartzatzeko. Adibide gisa, hor dugu Napoleon enperadoreak eginiko purga:

“Brumarioaren” 18an boterea harturik, egunkari ugari suspenditzen hasi zen bere itxura ona zaintzearen. Data horretaz geroztik hilabete bi buruan 13 berripaper ziren Parisen. Gainera argitartzen zena kontrolatzeko prentsa-bulegoa sortu zuen. Hala eginda, **1811 urte soil soilik lau egunakari zeuden Parisen.** Eta hori frantses iraultzaren mendean, hainbestetan errepikatu diguten askatasun garai hartan.

Zer jazoko da orain, burjes demokraziak haren semeak izanez? Legeen bidez hamaika oztopo (zentsura erak, prentsa-askatasuna omen dagoen arren) jartzen zaiela beste komunikabideei beren aburuak azaldu gura dizkigutenean. Ez dugu txit exenplu konkretua Euskal Herrian EGIN egunkariaz?

KOMUNIKABIDEEN ARRISKUA

Lehendabizi esandakoari jarraituz, zer aipatu beharko dugu telebistaketa irriak ematen diguten programakuntzaz? Eta prentsaren berriez? Dena buruzko kolonizakuntzarantz bideratuta egoten dela. Albisteak itxuragabetuta etortzen zaizkigu. Telebistan pertsonaia imitagarriak erakusten dizkigute:

Travolta antzeko dantzari ederrak, inkonformistarena egiten dutenak nahiz eta gero sistemaren morroiak izan; Starsky eta Hutch polizia begikoak, geure burua haiegan agertuta ikus dezagun (I love you Hutch, do you like...?), eta abarrekoak.

Anitzetan, heuren programak entzuten ditugula, sujetu aktibo izan beharrean hartzaile pasiboak izanen bagina bezala egoten gara. Alienatuta gaude beharbada eta irratigailua edo ta telebista konektatzean ez dugu entzunkizunaren azpiegiturako funtsa aztertzen. Esaterako, F.M. ospetsuaren soinuak kantatzen aritzen garenean, goikoek entzuten behartzen

KOMUNIKABIDEEN GARRANTZIAZ

diguten musika moeta horrek kontsumismoaren eskemataraino eroaten gaitu. “Eta honek, zer funtzio du?” —itaunduko du norbaitek— Osoki ikusiz gero, funtzio ttikia, noski. Katea askotako katenmaila besterik ez da.

SISTEMAREN JOKAERAREN ELEMENTUA

Gizartearen gidariek beti izan dituzte populua menperatzeko moduak. Oraingoan errepre-sio fisikoarenez gain, ba daude gogozkoak: Komunikabide arloa haietariko bat izanen litzateke. Aldizkarietatik, telebistatik, irratitik, egunkarietatik hartzen dugunaren eduki faltsu-

tuta izaten da boteretsuen zerbitzua. Eta haigu masifikatzea lortu dute. “Berdintsu” izategara. Berdintasunaren esangura aldatu eginda. Aintzinean, indibidualitatearen bilakaerarentzako baldintza ei zen. Gaur, ostera, **identitate ematen du aditzen, ez multzoaren batasuna:** lan berberetako gizonen identitate; komunikabide bera erabiltzen eta ideia berberak edukitzen dituztenen identitate; gustu beren identitatea, hots, **roboten identitate, sistemak armarik gabe utzi ahal izan dituen automaten identitatea.**

Baina guk zoriontsu izan nahi dugu, gaur nortasuna nabaritzuz. Eta zer egiten du sistema? “indibidualista”, “ezberdin”, garela sinatu dezagun? Ohikeria barruan sartzen gaituzten elementuak asko dira:

- Joko politikoa: —“Ni ez naiz zu lakoa, partidu honen alde bainago” askotan artalde beren partiduan izan arren.
- Publizitatea: Diferente izan!! (Bai, baina haiek erranen diguten moduz).
- Konpetentzia: Diru gehiago irabaz ezazu. (Besteen gainean pasatzeko)
- Lan sailketa...

Baina funtsean, deusik ez da aldatu. Arren horretatik aldenduko dena zoro izanen da.

Lagun gehienak konformismo beharrezko kontzientziarik ez daukate. “Indibidualistak” direlaketan poz pozik bizi izaten dira zeren eta beren pentsamenduz ondorio orokorretara ailegatu baitira, baina ez dakite ideia horien besteak direnik. Denon arteko kontsentzua da “gogoeta” horien korrekzioaren frogatza. Eta, txarrena, gu maiz konturatu ere ez honetaz!!

Komunikazio kanal bakoitzaren atzean ideologia bat dago. Han ematen dena sistemaren oinarria indarragotzeko erabilia da gehienetan. Informazioa ez da inpartziala. Finantzatuta etortzen zaigu eta argi ikusten da informazio emateagatik ordaintzen dutenek beren interesak zaindu behar dituztena.

Beraz, edozein komunikabidetako mezua hartzerakoan ikuspundu kritikoaz jarriko dugugeure burua, nahiz eta medio hori maneiatzen dutunen pentzuaz bat izan. Bestela, gizakiarik abstrakzio gaitasuna galtzeko zorian ibiliko da “laugarren botereak” arras ezpertsionalizatuta eta menperaturik izanen garen unea heldu gaitete.



Beraz, edozein komunikabidetako mezua hartzerakoan ikuspundu kritikoaz jarriko dugu geure burua nahiz eta medis hori maneiatzen dutenen pentzuaz bat izan.

ANAITASUNARAKO

GUTUNA:

Eztabaida denez gaur faltatzen
zaiguna, egokitzen eman dut Anaita-
suna, entzun behar dutenek bedi
hau entzuna: alperrik kontatzea
nork jakina duna!
txit egin duguna,
ez al da aztuna?
Hemen da gutuna,
eman erantzuna;
"Mutil koxkor bat" du doinu
ezaguna.

Larogeitabat da aurtengoa,
joana da larogeia,
baina bizitza Euskalerrian
ez da horgatik alai;
hori dela ta eztabaida dut
sortu erazteko nahia,
hainbat gai latzez hitzegiten gu
lehenbaitlehen gaitzen saia:
azken asteko gertaeretan
eskaini digute gaia!

Aspaldi neukan sortu nahiean
ondorengo eztabaida,
ea haizea fresko ta garbi
datorren gure herrira;
jendeak beti idazten baitu
norbere egunkarira,
Deia Egin edo Anaitasuna,
bakoitza bere harira;
ta bitartean mixeri latza
Euskadira etorri da!

Anaitasuna HBkoa
agertzen da nagusian,
eta horgatik hontara nahi dut
ekarri hil duten Ryan.
Bera erahila dela jakinda
min-malkoak aurpegian,
ta hau batez ere ustelkeria
nagusi baita herrian,
ezkerrak egun baitu egiten
lehen soil zena eskubian.

Aspaldi hontan desmadraturik
da burruka harmatua;
bide okerra eta zikina
nire ustez du hartua.
Eraso gura diot nahiz eta
batzuk duten sakratua:
ez ote dira konturatutzen

lasai dela Estatua,
ta bitartean Euskalerra hau
dela odol-merkatua!

ETAren kontra eginez gero
sarri izan da esana,
biolentzia atxakitzat ta
ondokoa zeramana:
boterearen represioa
estaltze asmoko lana.
Gaur ez zaitezte modu horretan
inguratu niregana,
boterearen aurka baitaukat
nire gogo ta izana.

Gizakume bat erahilez gero
sarri ohi da erabaki,
lurperatua ondo zegona,
txakurra edo izaki.
Heriotz-pena dugu hutsean
bizitza kentzea bati;
behintzat horrela ezer lortzerik
ez dela edonork badaki:
ta ezer ez da eskuraterik:
Zapaltzaileek ze atxaki!!

Uzteasko dute hartu bidea,
bestela Oligarkiak
zapaltzeko ta, atek ditu
parez-pare irekiak.
ETA behar da; nonbait ez dira
gaur arrazoiak txikiak,
efikazia ahaztuz bengantza
hutsan ez al dira hasiak?
Halere Euskal Herria hautsiz
oraindik hiru zatiak.

Egoera hau nola sortu den
orain esatera noa:
Euskalerrian txit zabaldurik

dugu estalinismoa;
noizbait helburu gisa zutenek
herri-askatasun asmoa,
gaur ari dira soilik indartzen
hemen militarismoa.
Ha ze haundia gertatu zaigun
heriotzaren lainoa!

Ryan bahitu zuten baino lehen
soberan zuten jakina
bizitza merke batgatik zela
zentrala bota ezina.
Hala ta guztiz astakeria
jadanik dute egina;
polizia ta ETA artean
banatu da herri-mina:
Zentrala egin dadin al dute
hauek jarri ahalegina?

Martxa honetan, Del Burgo edo
ETAn esku hiltzeko da;
egun horretan Nafarroa da
urrunduta luzarora.
Lehen ere bomba eroak jarri
ta gehiago dago droga:
Nola liteke hainbesteraino
bidea galduta zora?
Tiroka segi nahi duen oro
bihoa Pazifikora!!

Egoera ez dugu inolaz alai;
odol-jarioak ez al du amaia?
Bertsotan edo prosan erantzuten saia,
bertsolari-umil honek hortan dizu nahia
HB ta EIA,
LKI, LAIA
edozein anaia,
entzun nire deia,
lñaki Lasak dizu gaur jarri gaia.

Laneko produktibitatea auzi larria da gaur egun. Burjes entresari eta ekonomiarren gogoan gero eta interes handiagoa lekua hartu dauka, batez ere sistema kapitalistaren kinkarik (1) larrienean, beronen ezaugarria etekin (2) tasa beharpena baita.

Ba dirudi kapitalak, produktibitatea gehitzearekin, mirarizko ura aurkitu zukeela, ekonomiarren birzuzpertzeko (3) oinarriak garastatu, hots, erakarri egingo zituena. Logikazki, ikusgune honek langileei aldean ekarriko zizkien kostu sozialak saihestu beharrez. Interes honen erakuskeri ona hurrengoak ditugu: CEO-Eren "Jornadas sobre productividad" delakoak, iazko Irailean egindakoak; gai honi buruzko klausulak krisi-espedituetan eta sektorekako berregiturazuetan (4) barnesartzea, batere salbuetsi gabe; hitzarmenetan produktibitateari buruzko atalak tratatu nahia; UGT-CEOek Akordio-Markoan (AMIC) itundutako atala, produktibitatearen gehitzen eta "absentismo" delakoaren kontrolari buruzkoa.

Arazo honetarako kapitalaren interesa eta sindikatu nagusiek arazo honi lotzeko orduan duten argitasunik eza, kontrastean daude. Honek ba garrantzitsu produktibitateari datzekion (5) burjes filosofia inplizituki, ixilbidezki (6) onartzeri; UGTen kasuari beha, AMIC delakoa sinaturik haren postulatuetan lortsagabekiro onartzeri. Bestalde, ez litzateke haundia izango, langile mugimenduan diharduten korrante iraultzaileetan sentiberatasun (7) gabezia nabaria egiaztatzea, arazo honi dagokionez, edonondik ikusita ere, kasu berezi eta behinena merezi duen zerbaite den bezala delarik.

KAPITALISMOA ETA LANAREN ANTOLAKUNTZA (8)

Kapitalismoaren garapen (9) aldietan zehar, lanaren antolakuntza aldatu da gainbalioa (10) gehitzeko, kapitalaren beharizanen arauera. Ba du zerikusirik izan transformazio hauekin, hurrupakuntzaren (11) gehipenerako langile klasearen euspenak (12).

Lehenengo aldian, "kapitalismo lehigarrian", gainbalioa gehitzea laneguna luzatzearekin batera zihoan. Langile mugimenduarlo honetan zenbait eskubide minimo eskuratzeak eta kapitalismoa bera kapitalismo monopolista (kapitalaren biltze eta erdiratzea) bilakatzeak, joanera egin zuten produkzio-eritmuak areagotzera (13); hau guztiau fabrikatu zuten produkzio-prozedurari ezarritako zenbait aurkikuntza (14) zientifikok.

Bertan Frederick Taylor eta honek sortutako sistema, "taylorismoa" edo "lanaren antolakuntza zientifikoa", ezarri beharra dago. Funtsean, produktibitatearen oinarri ideologiko eta teknikoak dakartza, burjes ikusgunetik begiratu. Ustezko "zientifikotasuna, objektibitatea eta neutraltasuna" ditu apaingarri sistema honen. Taylorismoa, egitekoen partzelaketa, higiduren (15) bakuntzea (16) eta errepikatutasuna (17) "lan produktibo eta eragin-korragoaren" oinarri gisa dituen sistema bat da. Honetarako menekotasun eta laneko diziplina haundiak beharrezko ziren. Produkzio-sistimetan egindako "aurkikuntza edo aurreramentu teknologiko" bakoitzak, gero eta sakonago egin dute prespektiba honetan eta kapitalari medio teknikoak eman dizkiote, produkzio-eritmuak gero eta areagotzeko.



Zenbait jakintzak, ustez zientifikok direla, beren lankidetzari eta instrumentalizazioarekin lagun egin diote sistema berorren garatze eta ezartzeari. Modu berezi batez, hau beratu gertatu zaio Psikologiari, konduktismo eta akondizionamenduari (eragitea-erantzua) teoriari, nortasunari buruzko arras teoria "humanistetaraino" (psikanalisiaren manipulazioa barne), artean laneko konfliktibitatea kontrolatzeko mekanismo kontzeptual osoa dagoela. Gizonaren askakuntzarako (18) baino, langileak sistema hurrupatzailearen menderatzeko balio gehiago izan dute jakitateok.

LANAREN ANTOLAKUNTZAREN KRISIA ETA KAPITALISMOAREN ERASOA

Langileek metodo hauen ezarrierari gogor egin zioten era nabariz lehen saioetatik. Erantzua lanerako metodoen aurka era ireki eta zehatzez agerterazi zen, bai eta ixilbidez, inplizituki ere, hau da, laneko lar-hurrupakuntzak (19) konfliktibitate haundiagoaren lehergarri eta azpiko kausa gisa diharduela, nahiz eta konfliktibitate hau eskabide zehatzen edo errefusatzeko molde "eskutuen", bidez, sabotaiara edo absentismora bultzatuz, azaldu ez. Ez dago zalantzarik, langile mugimenduarlanaren antolakuntza kapitalistari, lanaren burjes adierari eta produktibetei burruka latz eta garrantza egin diela. Errefus honen adierazpenik gehiena eta, bide batez, garrantzirik haundiena helzten den unea, 68.eko Maiatzaren ondotiko burrukaldien ondorio ditugu.

Kapitalismoak langile-erantzuerari emandako kontraekintzak (20) bi fronte funtsezko izan zituen bere lehenengo aldietan. Alde batetik,

lanaren antolakuntza berritu nahi zuten, eta hartarako, langileari eragiteko eta hura berentresari ibili onen "partaide" bihurtzeko elementuak sartzen zituen. Halakoxeak ditugundoko saioak: "egitekoen aberastea" eta "taldelana"; honixe produktibitate minimo bat esleitzen (21) zaio, lana banatzeko askatasuna emanez. Hauek, "fordismo" eta "neofordismo" deitutako sistimak ditugu. Bestalde, katea inperialistaren inguraldera (22) lekualdatzen (22) dira hurrupakuntz maila haundiagodaramaten, harako lan haiek.

Halere, ordezko sistema hauen ezartzeak aldean dauka langileen mesfidantza eta gaur egun, krisi egoera honetan, kapitalak haiei erantzutezko putz egitera jotzen du epe laburrean. Taylorismoaren sistema klasikorantz bira egiten du, jadanik aipatutako inguraldera (22) lekualdatzeri (22') segituz. Baina, batez ere, bere alde erabili nahi du langile mugimenduarantolatuaren ahulezia, langabeziaren gehitzapena eta lanpostuaren kolokatasuna (23) langile sail haundien eragingarri (24) garrantza diren uneotan.

Textuinguru honetan ulertu behar dira burjesiarren eraso ideologikoa eta beratu legeak hezurramitzea (25), laneko konfliktibitatearen kontrola berreskuratzeko eta, bereziki, produktibitate-tasa gehitzeko. Hau honen "japoniar modeluari" egindako laudorio eta balakuak (26) ulertzen dira.

Dena esan beharrez, sindikatuak berak dituguburjesiarren eraso ideologikoa eta beratu legeak krisitiko "irteera elkarbanatua" (27) beren ihardueraren (28) giltza eta gako (29) bihurtzeko baitute. Modu honetara, egoera zail honetan langile mugimendua andegutzen (30) dute.

Taylorismoaren sistema klasikorantz bira egiten du, jadanik aipatutako inguraldera (22) lekualdatzeri (22') segituz. Baina, batez ere, bere alde erabili nahi du langile mugimenduarantolatuaren ahulezia, langabeziaren gehitzapena eta lanpostuaren kolokatasuna (23) langile sail haundien eragingarri (24) garrantza diren uneotan.

Honetarako, datu batzu ditugun erakuskari eder: laneko istripuen kopurua, Espainol Estatuan, urteko milioi batetara iristen da; lau langiletarik bat gai toxiko hilgarrien ekintzaren menpean dago; egungo egunean ba daude 700.000 produktu kimiko, egunero industriak ohi darabiltzanak, eta urtero 10.000 inguru gehiago egiten dira: herri industriadunetan ematen diren minbizi kasuetarik %30a, lanpostuetan eskukatzen (40) ari diren produktuei zor zaie; langiletarik %40a lanagatik psikikoki afektaturik dago eta buru-patologiaren (41) eraginagatik lan-absentismoaren %25a sortzen da.

Akordio-Marakoak langileei dakarkien aipatu oldartzeaz (31) gain, bertan UGTk produktibitate-gehitzapenerako tratuak onartzen dituelarik, aipatu ere behar da Langilearen Estatuaren zenbait artikuluren sartzea. Artikulu hauek, (5, 20-4, 26, 34, 35, 37, 38, 52.d, 62.ak), produktibitatearen gehitzeko ahala aisatzen (32) diote neurri haundi batean empresariari. Hura bera langilearen eginbide gisa hartzen da eta adierazi egiten da entresako Batzordeak Zuzendaritzaren lankide behar duela izan. Bestalde, aipatu artikuluo, langileen gaineko entresaren kontrola berrindartzeari (33) dagozkionak behar zaizkio erantsi.

SINDIKATUEN HAUTAKIZUNIK BAI OTE?

Ba ote da hautakizun (34) sindikalik, "produktibitate-absentismo" gaiari buruzkorik? Argi dago ezetz, logika kapitalistatik behatuta. Baina gauza segura da sindikatu nagusiak, produktibitatearen gehitzea behin eta berriz tratatzeko prest, ez dira logika horretan sartzetik gibelatzen (35).

Lehendabizikorik, produktibitatearen arzoari gaur egun lotzeak, beharizanen eta ekonomi garapenerako motibazioen sail bat onartzea dakar aldean, egungo garapenerako modeluak oinarri dituelarik beroiek. Kontsumismoan, "aurrerakuntzaren" (36) ideologian, energiaren alferrikaltzean finkatutako gizarte kapitalistan ulerterraza da, produktibitate edo, hobe esan, produktibismoaren galdakizuna (37) lehen mailara, beharizan objektiboaren antzean, altxatzea. Aitzitik, eta aski frogatua dago, "denok lan egiteko gutxiago egin" slogana ezin hobeki beteko litzateke beste garapenera modelu batetan, gizarteko beharizanak beste la mugatzekotan, noski.


